

ESKOLARTEKO IPUIN LEHIAKETA

XX. edizioa

2 0 0 8

*Mi
Rafael Koleta*

Fotokonposaketa eta Fotomekanika:

IKUR, S.A.

Inprimatzailea:

BASTER, S.L.L.

ISBN: 978-84-88714-43-2

Lege Gordailua: BI-766-09

Liburu honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du.



Urteak joan urteak etorri, Mikoleta Ipuin Lehiaketak 20 urte bete ditu. Zenbaki borobila guztiz, lehiaketak Bilbotar gaztetxoen artean duen arrakastaren adierazgarri.

Hogei urte hauetan parte hartzaileen kopurua bikoiztu egin da; izan ere, 1989an 320 ipuin aurkeztu ziren eta 2008 honetan epaimahaiak 732 ipuin irakurtzeko aukera izan du. Beraz, datu hori ere lehiaketak herritarren artean duen onarpenaren seinale dugu.

Aurtengo sari banaketa ekitaldian ezinezkoa egin bazitzaidan zuon artean izatea ere, jakin ezazue Mikoletaren sari banaketa ospakizuna tradizio dela gure Udaletxean eta zentzumenen pozgarri izaten dela urtero, ekain inguruan, gazte soinu eta kolorez janztea gure Arabiar Aretoa.

Iñaki Azkuna
Bilboko Alkatea

Sariak

*Bilboko Udaletxean, bi mila eta zortziko maiatzaren hogeita zortziko arratsaldeko bostetan
batuta, hauxe erabaki du Rafael Mikoleta XX. Ipuin Lehiaketaren epaimahaiak,
aurkeztutako 732 ipuinak aztertu ondoren:*

A KATEGORIA (Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailak):

1. PEIO ARRATOIA,
Andrea Cabanillas Revuelta,
Pagasarribide LHI.
2. MARITXU BURUALDAGARRI,
Maialen Barandalla Luque,
Felix Serrano LHI.
3. GORRIGE HERRIA,
Oier Irazabal Garcia,
Kirikiño Ikastola HLBHIP.

B KATEGORIA (Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailak):

1. KOMUNeko PAPERAREN ISTORIA,
Guillermo Manzanares Dominguez,
La Salle Bilbao HLBHIP.
2. AITONAREN MUSEOA,
Maitane Agirre Oiarzabal,
Kirikiño Ikastola HLBHIP.
3. BART GAUEKO MISTERIOA,
Sara Fernández Uria,
Felix Serrano LHI.

C KATEGORIA (DBHko 1. eta 2. mailak):

1. NIRE AITONA PUNK-A ZEN,
Markel Pisano Berrojalbiz,
Karmelo Solokoetxe BHI.
2. BENETAKO FAMILIA,
Alex Zarate Casaseca,
Miguel de Unamuno BHI.
3. KOLPE GOGORRA,
Miguel Prieto Recio,
Miguel de Unamuno BHI.

D KATEGORIA (DBHko 3. eta 4. mailak):

1. MAITASUNAREN MEMORIA LABURRA,
Irati Malatsetxebarria Elizegi,
Gabriel Aresti BHI.
2. ANEREN EGUNEROKOA,
María Madrazo Mediavilla,
Ignacio Ellacuria BHI.
3. BANDALOEN MENPE,
Andoni Bermeo Pérez,
Ignacio Ellacuria BHI.

ARGITARAGARRIAK:

A KATEGORIA:

- LIBURU MAGIKOA, Itziar Perez Rotaetxe, Felix Serrano LHI.
- ETXERA KO LANEN MUNDUA, Alex Bartolomé Veiga, Zurbaranbarri LHI.
- ANE ETA BERE INSTRUMENTUAK, Begoña Ezquerro Oses, Kirikiño Ikastola HLBHIP.
- TXINARA BIDAIA, Olaia Alberdi Sololuze, Txurdinaga LHI.

B KATEGORIA:

- JONEN ARAZOA, Martin Ruiz Azkarate, Felix Serrano LHI.
- LIBURU MAGIKOAK, Javier Diez Caballero Gallo, Deustuko Ikastola IPI.
- NIRE BIZITZAKO UNERIK IKARAGARRIENA, Aroa Rodriguez Bolado, Gabriel Aresti LHI.

C KATEGORIA:

- ADISKIDETASUNA EZ DA BETI ERRAZA, Ane Julian Arranz, Artxandape Ikastola HLBHIP.
- GEZURRAREN BIDAIA, Nerea Sánchez Bediaga, Artxandape Ikastola HLBHIP.

D KATEGORIA:

- ALAITZ, LAGUN BEREZI BATEN ISTORIOA, Irene Vadillo Álvarez, Gabriel Aresti LHI.
- AMONAREN TESTAMENTUA, Ainhoa Garmendia Lope, Ikasbide HLBHIP.
- EUXEBIO ETA LUISA, Nerea Arrieta Ibañez, Artxandape Ikastola HLBHIP.

Eta batzarra bukatutzat ematen da, Bilbon bi mila eta zortziko maiatzaren hogeita zortziko arratsaldeko seietan.

Ana de Castro Rubalkaba, epaimahaiburua

Lutxo Egia, epaimahaikidea

Xabier Gereño, epaimahaikidea

Jose Maria Larrea, epaimahaikidea

Jesus Etxezarraga, epaimahaikidea

Luis Gutierrez, epaimahaikidea

Pedro Alberdi, epaimahaikidea

Txani Rodriguez, epaimahaikidea

Nagore Layuno, idazkaria

A
KATEGORIA
(LHko 3. eta 4. mailak)



PEIO ARRATOIA

Andrea Cabanillas Revuelta
Pagasarribide LHI

Bazen behin, sagutegi batean bizi zen sagu apal bat. Bere izena Peio zen. Bere etxea oso txukuna zen eta oso polita. Baina bakarrik sentitzen zen eta ezkondu nahi zuen.

Beraz, egun batean pentsatu zuen Peiok:


—Nik munduko garrantzitsuenarekin ezkondu nahi dut. Gizakiarekin, noski! Orduan, Maria izeneko lagun batengana hurbildu zen.

—Egun on, Maria —esan zion Peiok.

—Halan ekarri, Peio —erantzun zion Mariak.

—Zera... Maria, nirekin ezkondu nahi duzu? —esan zuen sagutxoak— Majoa, zintzoa, apala... zara eta.

—Ez horixe. Ni ezin naiz arratoi batekin ezkondu —esan zuen Mariak— Joan beste batengana.



—Ongi da, Eguzki andreari eskatuko diot —esan zuen Peiok.

Horrela, Eguzki andrearengana jo zuen.

—Kaixo, Eguzki andrea —esan zuen Peiok.

—Kaixo —erantzun zuen Eguzki andreak.

—Nirekin ezkondu nahi duzu? —galdetu zion Peiok.

—Ez horixe —esan zuen Eguzki andreak—. Ezkonduko bagina, hodeiek estaliko nindukete eta ezingo genuke elkar ikusi.

—Orduan hodeiei eskatuko diet —erantzun zuen Peiok.

Orduak joan orduak etorri, hodei bat ikusi zuen eta hitz egiten hasi ziren:

—Eguerdi on, Hodeia —esan zuen Peiok.

—Halan ekarri —erantzun zuen Hodeiak.

—Nirekin ezkondu nahi? —esan zuen Peiok.

—Nik ez —esan zuen hodeiak—. Ni haizeak eramango ninduke eta ezingo genuke elkar ikusi.

Gero arratoiak, nekaturik, hauxe esan zuen:

—Haizeari eskatuko diot.

Haize andrea, —esan zuen arratoiak nekaturik— nirekin ezkondu nahi duzu?

—Ez, eskerrik asko. Ni libre bizitzeko jaio nintzen. Nire nagusiari eskatu, hau da, Iparrorratzari —esan zuen haizeak.

Tipi-tapa, tipi-tapa sagutxoak gau osoa eman zuen iparrorratz bat bilatzen. Azkenean denda bat aurkitu eta sartzen saiatu zen, baina ezinezkoa izan zitzaion dendaria lo geratu arte. Peiok hau esan zion Iparrorratzari:

—Gabon, Iparrorratza.

—Gabon —erantzun zuen Iparrorratzak.

—Nirekin ezkondu nahi duzu? —esan zion Peiok Iparrorratzari.

—Ez, ez eta ez. Ni Haizeari agintzeko bizi naiz —esan zuen Iparrorratzak— gainera ni zaharra naiz eta apurtuta nago.

—Eta nork apurtu zaitu? Jakin al daiteke? —esan zuen Peiok.

—Bai noski —esan zuen Iparrorratzak— Ni arratoiek apurtzen naute.

—Bai, ongi —oihukatu zuen Peiok— Orain erraz-erraz ezkonduko naiz, eta gainera badakit nori eskatuko diodan, baina bihar eskatuko diot.

Horren ostean lotara joan zen, eta hurrengo egunean altxatu, prestatu eta korrika joan zen Leireren etxera.

—Kaixo, Leire —esan zuen Peiok.

—Halan ekarri, Peio —erantzun zuen Leirek.

—Nirekin ezkondu nahi duzu? —jarraitu zuen Peiok hizketan.

—Bai horixe. Zurekin ezkonduko naiz —esan zuen Leirek.

—Bihar bertan ezkonduko gara —esan zuen Peiok.

Eta hurrengo egunean ezkondu ziren, eta handik aurrera poz-pozik bizi izan ziren.



MARITXU BURUALDAGARRI

*Maialen Barandalla Luque
Felix Serrano LHI*

Bazen behin Maritxu izeneko neska bat. Jaio zenean oso normala zen baina, urte batzuk bete ondoren, gauza arraroak egiten hasi zen. Gure istorioa Maritxuk bederatzi urte zituenean hasten da.

Goizeko hamarrak ziren eta Maritxu asper-asper eginda zegoen sofán botata bere neba Martinekin pelikula bat ikusten.

Bat-batean, Martinek oihu bat bota eta sukaldera joan zen amarengana.

Eta hitz totelka esan zion amari:

—Maritxu... sudurra... azenarioa... —esan zion Martinek.

Amak, ulertu ezinik, hobeto azaltzeko esan zion:

—Martin, ez dizut tutik ere ulertu. Lasaitu eta azaldu.

—Maritxuren sudurra azenario bihurtu dela! —erantzun zion Martinek.

Bitartean Maritxu sukaldean zegoen azenario erraldoi batekin sudurraren ordeztu. Amak ikusi zuenean, benetan izutu eta Maritxuri esan zion:

—Maritxu, azken bost minutu hauetan begiratu al zara ispiluan?

—Ez ama —erantzun zion Maritxuk— Ni ez naiz neska txotxoloa eta ez zait inporta nire itxura.

—Ba orduan, begiratu zartaginean —esan zion amak.

Maritxu zartaginean begiratu zenean izu oihu bat bota zuen eta azenarioari tiraka hasi zen oihu bizian:

—Kendu, kendu, kendu! —oihukatzen zuen.

Amak, Maritxu hain asaldatuta ikustean, honela esan zion:

—Lasai. Jan ostean Buruargi medikuarenera joango gara, horrelako kasu arraroetan oso fama handia du eta.

Maritxuri ez zitzaion ondo iruditu bazkalostera arte itxaron beharra, baina Buruargi medikuak bere kontsulta bi herri aurrerago zeukanez kotxean joan behar ziren eta horretarako Maritxuren aitari itxaron behar izan zioten.

Bazkalostean familia osoa kotxera igo eta Buruargi medikuaren herrirantz abiatu ziren. Kontsultara heldu zirenean Buruargik barre purrustada bat bota eta honela hitz egin zuen:

—Bai erreza; zuk daukazuna metamorfosia da. Ea neska, ze pelikula ikusten ari zinen? —galdetu zion medikuak Maritxuri.

—Azenario erraldoia —erantzun zion Maritxuk.

—Ikusten? —esan zuen medikuak—. Asper-asper eginda zeundenez zure ahalmen paranormalak martxan jarri dira.

—Baina, baina nola kenduko diogu azenario beldurgarri hori aurpegitik? —galdetu zion Maritxuren amak medikuari.

—Ba... Argazkiz inguratu behar duzue egun oso batez eta gauean ikusiko duzue azenarioa desagertu dela.

Hurrengo goizean, horrela egin zuten Maritxuren gurasoek eta Maritxuk argazki artean eman zuen eguna.

Baina gaua heldu eta gurasoak Maritxu argazki artetik ateratzera joan zirenean ama zorabiatu eta lurrera erori zen:

—Ene Jesus! Orain buru karratua duzu —intziri egin zuen.

—Baina, behintzat, bere sudurra normala da —esan zuen Martinek.

Bazkaldu eta gero Buruargi medikuari telefonoz deitu zioten eta berak beste erremedio bat eman zien:

—Maritxuk aste bat pasatu behar du arrautza asko dauden leku batean —esan zuen medikuak.

Gurasoek amamaren baserrira bidali zuten eta oilotokian bizitzen jarri zuten Maritxu. Aste iraungarri hura pasatu ostean Maritxu etxera bueltatu zen baina hobe izango zen hori ez egitea, izugarritzko nahasmena sortu baitzuen.

Martin barreka hasi zitzaion, aitik kafea arropa garbira bota zuen eta amari gutxi faltatu izan zitzaion bere buruaz beste egiteko. Orain Maritxuk burua biribila, zuria eta ilerik gabea zuen, arrautzak bezala.

Bazkalostean, hirugarren aldiz, Buruargi medikuari deitu zioten eta beste erremedio bat eman zien eta Maritxu eskola batera bidaltzeko esan zien.

Horrela egin zuten eta Maritxu Ikasliburu eskolara bidali zuten.

Klaseak hasi zirenean Petra andereñoak Maritxu aurkeztu eta lehen ilaran jarri zuen. Matematika ordua zen eta Petra andereñoak biderketak azaltzen hasi zen. Maritxu aspertzen ari zen eta hori arriskutsua zen.

Ondorioak bi minutu geroago ikusi ziren. Petra andereñoak izu oihu bat bota eta hankaz gora jauzi zen. Umeek ur hotza bota behar izan zioten aurpegira. Osatu zenean errietan hasi zen:

—Maritxu, broma xelebrea iruditzen zaizu nire aurpegia zure aurpegian kalakua ikustea? —oihu egin zuen Petrak.

Gero Petrak Maritxu kalera bota eta haren gurasoei deitu zien.

Maritxuk patiora alde egin zuen. Han lagunik ez zeukanez aspertzen hasi zen eta aurpegia altxatu zuenean... BUM! Baloi batek aurpegian eman zion. Baloia bota zuen mutikoa barkamena eskatzera joan zenean, Maritxuren harridurarako hau esan zion:

—Barkatu. Zu berria zara, ezta?

—Ez. Ez duzu ikusten Petra andereñoa naizela? —erantzun zion Maritxuk.

—Zu Petra “Ipurterre” eta ni Superman —esan zion Maritxuri mutikoak eta futboleak jolastera joan zen.

Maritxu berriz aspertzen hasi zen baina inortxok ez zion ezer esan. Gero gurasoak bere bila joan zirenean amak poz oihu bat bota zuen. Etxera itzuli zenean ispilura begiratu eta konturatu zen baloiaren kolpeari esker bere itxura berreskuratu zuela. Ez zitzaion inoiz ere berriro aldatu.



GORRILE HERRIA

Oier Irazabal Garcia
Kirikiño Ikastola HLBHIP


Bazan behin herri bat Gorriga deitzen zana. Gorriga oso txikia zan, ba-karririk hogei etxe zituen. Etxeak ere txikiak ziran. Teilatuak gorriz margotuta egozan eta hormak morez. Bizilagunak iratxoak ziran. Herri erdian plaza bat egoan eta plazan harri distiratsu bat.

Harri hau oso berezia zan: landarak, lorak eta ortuariak handitzea lortzen eban. Egun batean, bat-batean harria amata egin zan eta bere argi gabe landarak hiltzen hasi ziran. Iratxoak tristetu egin ziran. Ez ekien zer egin eta danak esaten eben:



«Zer gertatzen da? Zergaitik ez da argia pizten?». Orduan herriko plazan batu ziran konponbideren bat aurkitzeko eta Luki eta Daki inspektoreei deitzea erabagi eben.

Luki eta Daki bi super amona arraro ziran baina arazo guztiak konpontzen ebezan. Sumendi baten bizi ziran herritik laurehun kilometrotara. Orduan euren hegazkinean etorri ziren.



Herrira heldu bezain laster, plazara joan ziran harria ikustera eta han ordu bete igaro eben ezer esan barik. Ordua igaro eta gero, botoi bat egoala konturatu ziran. Beldur apur bategaz botoiari sakatu eutsen. Bat-batean ate bat agertu zan. Zabaldur eta tunel bat ikusi zuten. Tunelean sartzea erabagi eben eta gizakien mundura heldu ziran. Zabor multzo bat ikusi eben eta momentu horretan konturatu ziran zabor multzo hori zala harria itzaltzen eban gauza. Zabor gainera igo eta ume batzuk ikusi ebezan parke batean berba egiten. Deitzen hasi ziren baina, hain txikiak zirenez, ez eutsen entzuten. Orduan sua egin eben. Sua handitzean umeak itzaltzera joan ziran. Luki txirula magiko bat hasi zan jotzen eta, orduan, umeak entzun eben. Harrituta geratu ziran iratxoak ikustean, ipuinetan bakarrik existitzen ziralako pentsatzen ebelako. Lukik eta Dakik arazoa azaldu eutsen, umeek ulertu eben eta dana garbitzen hasi ziran. Garbitu ondoren, harria distiratsua izan zan betirako.

Umeek berba emon eben ez ebela barriro zaborrik botako. Super amonak herrira bueltatu eta jai handi bat ospatu eben.

Hala bazan edo ez bazan, irten daitela Gorrigeko plazan.

LIBURU



MAGIKOA

*Itziar Perez Rotaache
Felix Serrano LHI*

Baziren behin hiru neskato lagun min-minak zirenak eta beti elkarrekin zeudenak. Batek Zuriñe zuen izena; garaiena eta argiena zen, beti txantxetan zebilen. Bigarrenak Nuria zuen izena; ertaina eta beldurtia zen. Hirugarrenak Agurtzane zuen izena; txikia eta ausarta zen.

Zuriñe, Nuria eta Agurtzaneren eskolako gelan baziren hiru mutiko bihurri. Matias, Blas eta Eneko ziren eta beti beste hiru neskatoei gauza txarrak egiten zizkieten.

Egun batean hiru neskak gozokiak erostera joan ziren eta dendatik irtetea mutilek gozoki guzti-guztiak hartu zizkieten. Hiru neskatoak oso nekaturik zeuden hiru mutilak jasateaz.



Hurrengo egunean Nuriaren amamaren etxera abiatu ziren eta, bazkaldu ondoren, ganbarara igo ziren jolas-tera. Orduan, Zuriñek Nuriari galdetu zion:

—Ba al dakizu zer dagoen kutxa zahar horren barruan?

Eta Nuriak erantzun zion:

—Ez dakit, ez dut begiratu inoiz. Itxita egoten da eta beldurra ematen dit irekitzeak.

—Baina, zergatik? Barruan zer dagoen ikusteko jakin mina daukat. Zabaldu mesedez...! —esan zuen Agurtzanek.

Kutxa ireki eta barruan hautsez beteriko liburua aurkitu zuten. Oso antzinakoa zela zirudien. Liburuaren izenburua “MAGIAZKO LIBURUA” zen. Liburua irekitzean interesgarria iruditu zitzairen. Orduak eta orduak geratu ziren liburua irakurtzen eta bakoitzak esaldi magiko bat ikasi zuen.



Zuriñek hau asmatu zuen Matiasentzat: *Hodei laguna, garbi ezazu Matiasen burua.*

Eta bat-batean euriz betetako hodei beltz-beltz bat Matiasen gainean jarri



eta goitik behera busti zuen. Orduan Matiasi irainak ahaztu zitzaizkion.

Nuriak esan zion Blasi: *Haize zakarra, garbi itzazu Blasen lelokeriak.*

Eta derrepente haize bolada bat agertu zen. Blas lurrera erori zen, baina minik barik. Orduan lelokeria guztiak ahaztu zitzaizkion.

Agurtzanek hau esan zion Enekor: *Eguzki kuttuna, ur itzazu Enekoren ideia txarrak.*



Eta une horretan eguzkiak bere izpiak bota zituen Enekoren burura. Orduan ideia txarrak desagertu zitzaizkion.

Horrela Matiassek, Blasek eta Enekok ez zirikatzen ikasi zuten eta hiru neskatoak eta hiru mutilak lagun minak egin ziren.




ETXERAKO LANEN MUNDUA

Alex Bartolomé Veiga
Zurbaranbarri LHI

Bazen behin kondaira bat etxerako lanen munduari buruz. Kondaira horretan kontatzen da pelutxezko hartz bati begian begiratzen badiozu, bizitza hartzen duela eta hartzak etxerako lanen mundura gidatzen zaituela.

Egun batean Samek, mutiko batek, kondaira hau irakurri eta hartz bati begiratu zion. Hartzak bizitza hartu zuen eta etxerako lanen mundura eraman zuen.


Etxerako lanen munduan zegoela, dena beltz eta argirik gabe ikusi zuen. Mendiaren tontorrean gaztelu handi bat zegoen.



Sam gaztelura sartu zen eta neska-mutil asko ikusi zituen etxerako lanak egiten etengabe.

Gizon maltzur batek lanak ematen zizkien baina Sam berarengana joan zen eta esan zion:

—Etxerako lanak ematen badiezu neska-mutilei, zuk zuzenduko dituzu.



Gizona pentsakor geratu zen baina berdin izan zitzaion.

Gero orduak eta orduak eman zituen etxerako lanak zuzentzen eta Samek esandakoaz gogoratu zen eta, oso nekatuta zegoenez, erabaki zuen hau egitea: etxerako lan gutxi ematea.

Eta horrela gizona ona bihurtu zen.

“Baina bigarren atala falta da. Erosi”.





Begoña Ezquerro Osés
Kirikiño Ikastola HLBHIP

Kaixo!
Ane naz eta txikitan gertatutako ipuintxo bat kontatuko deutsut.

Nik txikitatik orkestrako zuzendaria izan nahi neban, baina aitak eta amak ezetz esaten eusten ikasketa hori oso zaila eta luzea zalako. Gainera batzutan beste lurralde batzutara alde egin behar zan musika ikastera, Australiara, Alemaniara..., han musika oso garrantzitsua zalako jendearentzato. Etxetik alde egin eta aita eta ama utzi behar nituen, eta hori zen arduratzen ninduen gauzarik handiena. Eurak zuzendari izateko ideia kentzen hasi ziran baina, hala ere, niri musika itzelean gustatzen jatan.

Ikastolan txirula jotzen hasi nintzen eta irakasleak esaten eustan musikarako talentu handia neukala eta nagusitan, horrela jarraitu ezkeror, oso famatua izango nintzala.

Aitak eta amak, musika asko gustatzen jatala ikustean, Bilboko kontserbatorioan apuntatu ninduen pianoa, musika tresna gogokoena, ikasteko. Hamaika urtez egon nintzan kontserbatorioan pianoa jotzen.

Urteak aurrera joan eta kontserbatorioko orkestrara apuntatu nintzan, eta orkestran zein instrumentuk parte hartzen daben ikasi neban: saxofoia, biolina, pianoa, gitarra, biola, biolontxelo, txirula, oboea, kontrabaxua, tronpeta, tuba, fagota, tronboia... Baina, hala ere, pianoa zan nire instrumentu gustukoena.

Ez deutsuet kontatu baina nik ez neukan hartzik, ezta ahaterik, ohera joateko ia ume guztien moduan. Baina begiak ixten nituenean, pianoagaz amets egiten neban. Hitz egiten eustan eta berak ekizan sinfoniarik politenak jotzen eustazan.

Urteak pasa ahala, famatua egin nintzan. Gainera nire ametsa bete egin zan eta orkestra zuzendaria nintzan! Eta hortik aurrera ez nindoan bakarrik ohera, orkestra guztia etortzen zan nigaz; Nire pianoa apurtxo bat jeloskor egoan, pentsatzen ebalako bera ez zala nire gogokoena, ulertu eban arte beste instrumentuak nire lagunak zirala. Gauean danek euren alaitasunak eta tristurak kontatzen eustezan: biolinak Hawayra joan nahi eban oporretan, oso nekatuta egoalako; danborra haserretuta egoan pianoak baino gitxiago jotzen ebalako eta argi egoalako pianoa nire instrumenturik gogokoena zala; gitarra desafinatuta egoan; tronpetari asko gustatzen jakon tronboia, eta tronboiari, berriz, gehiago gustatzen jakon tuba...

Ni hurrengo egunean euren nahiak betetzen edo euren arazoak konpontzen saiatzen nintzan. Horrela orkestra guztia pozik egoan eta askoz be hobeto jotzen eben.

Jendeak esaten eban nire orkestra entzuten ebanean barre egiteko gogo eukala eta oso alai eta pozik urteten zirala kontzertuetatik, gainera gero eta jende gehiago etortzen zan.

Azkenean ipuin guztien moduan, ni musikari bategaz maitemindu nintzan eta ezkondu egin ginan.

Umeak euki genduzan eta eurak ez eukien hartzik ohera joateko musika tresnak eta nik kontatzen neutsiezan ipuinak baino.



Txinara bidaia

Olaia Alberdi Sololuze
Txurdinaga LHI

Nire izena orain Ane da baina lehen Chu May zen. Ni adoptatua naiz. Txinatik ekarri ninduten abioiez nire oraingo gurasoek 11 hilabeterekin. Noski, orain ez naiz gogoratzen nolakoak ziren nire lehengo aita eta ama.

Gauero pentsatzen dut berdina: nolakoak ote dira nire benetako aita eta ama? Hilda ote daude? Anaiarik badut?

Orain eskolara sartu berri naiz. Matematika dugu baina ez nago matematiketan pentsatzen, nire gurasoengan baizik.

Andereñoak zapuztu dizkit pentsamen-
duak, zatiketa bat egiteko esan dit eta.

Arratseko 19:00ak dira eta ordenagailua piztu dut jolasteko baina ordenagailuak zarata bat egin du: plinnnnnn. Txinara joateko iragarkia atera zait pantailan 37 euroren truke. Aitari eta amari erakutsi diet eta aitak oihukatu egin du:



—Txinako hegazkina zain dugu!!!

Ama eta ni pozik jarri gara.

Astebete pasatu da. Hegazkinean gaude eta gutxi falta zaigu Pekinera heltzeko.



Irten gara aireportutik. Taxi bat hartu eta hotelean agertu gara. Hotela handia da. Ama eta ni Pekin ezagutzera joan gara. Egia esan nik asmo bat daukat, baina ez diot inori esan: nire benetako aita eta ama ezagutzea.

Momentu horretan konturatu naiz: Baina nola jakin nortzuk diren nire benetako gurasoak?

Momentu batean aita zerbait galdetzera irten da eta ama dutxara sartu da; orduan nik amaren poltsatik nire jaiotza-agiria hartu eta poltsikoan gorde dut.

Inor konturatu gabe hoteletik irten naiz, isil-isilik. Hotelaren parean umezurtz-etxe bat dago. Nire jaiotza-agiria erakutsi dut bertan eta hau erantzun didate:


—Bai, aurreko etxean, eskuinera.

Hor topatu ditut nire benetako aita eta ama: Lia Chao eta Chao Wu. Ni jaio nintzenean zer gertatu zen kontatu didate: beraien presidenteak ez zuela neskak edukitzen uzten eta umezurtz-etxera eraman nindutela.

Bitartean nire beste gurasoak ere jaiotza-agiria falta zela konturatzean, umezurtz-etxean agertu dira.

Denek nahi dute nirekin egon. Nik ez dakit norekin gelditu, Bilboko gurasoe-kin edo Txinakoekin. Orduan nire Txinako gurasoek esan dute:

—Bele honek erabakiko du Chu-May norekin geldituko den.



Orduan kaiola batetik bele bat atera dute. Belea hegan ibili da zeruan buelta-ka eta azkenean Bilboko nire amaren buru gainean pausatu da.
Eta Bilbora itzuli gara hirurok.

Amaiera

B
KATEGORIA
(LHko 5. eta 6. mailak)



Komuneko paperaren istorioa

Guillermo Manzanares Dominguez
La Salle Bilbao HLBHIP

Kaixo! Komuneko papera naiz. Beno, izan nintzen, bizitza asko izan ditudalako. Orain kontatuko dizuet guztia.

Ni komuneko papera nintzen eta pakete batean nengoen, ni bezalako beste batzuekin. Oso pozik bizi nintzen lagunekin, baina, egun batean, norbaitek erosi gintuen eta bere etxera eraman gintuen.

Etxera ailegatu bezain laster, paketea zabaldu zuten eta ni hartu ninduten. Oso gauza handi eta zuri baten alboan utzi ninduten, ze zakarra zen gauza hori! Komuna zen gauza zuria. Handik ordu batzuetara, pertsona bat sartu zen gelan eta komunaren gainean eseri zen. Gero, nire beroki zuriaren zati bat hartu, zikindu eta komunetik bota zuen. Horrela, pixkanaka-pixkanaka, nire berokia amaitzen hasi zen, biluzik geratu arte.

Orduan, zakarrontzi batera bota ninduten. Han kartoizko eta paperezko gauza asko zeuden: amaitu gabeko marrazkiak, umeen artelan apurtuak, kutxa hutsak... Oso leku triste eta penagarria zen, balio gabeko gauzok hara botatzen gintuztelako.

Inork ez zekien zer gertatuko ote zen. Batzuek uste zuten deabruarekin eramango gintuztela. Beste batzuek, berriz, paper zuri-zuri eta on baten aurrera, Paper Jainkoa izenekoa, joango ginela eta gauza asko emango zizkigula. Nik ez nekien zer pentsatu.

Egunak pasatu ziren eta egun batean soinu handi bat entzun genuen. "Paper Jainkoa da!" —oihukatu zuten batzuek— "Bere etxera eramango gaitu!". Baina ez, ez zen Paper Jainkoa. Bakarrik gogoratzen dut beste gauza bat, guztiekin batera ontzi handiago batera jausi nintzela. Gero, lo geratu nintzen.

Esnatu nintzenean, handiagoa nintzela iruditu zitzaidan. Bai! Handiagoa nintzen! Handia eta karratua! Neure buruari begiratu nion; handia, karratua, estalkiduna... kutxa bihurtu nintzen!

Objektu batzuek uste zuten hiltzean beste bizitza batzuk bizi genitzakeela, eta egia zen. Birziklapena deitzen zioten.

Baina, non nengoen? Ez nekien. Baina bat-batean ate bat zabaldu, ni hartu eta iluntasunetik atera ninduten. Denda batean nengoen eta jendea leku batetik bestera zihoan, zapatak begiratzen. Zapatak eta zapatak, kutxen barruan, leku guztietatik zeuden. "Zapata batzuk sartuko dizkirate!" pentsatu nuen.

Orduan esku batzuek ni zabaldu eta "Puma" izeneko bi kirol oinetako sartu zizkidaten. Gero, apal batean jarri ninduten. Orduak pasa eta gero jendea joaten hasi zen. Azken pertsona joan zenean guztia ilun geratu zen eta nire barruan zeuden kirol oinetakoekin hizketan hasi nintzen. Horrela, "Pu" eta "Ma" ezagutu nituen. Anaiak ziren, 38 neurrikoak eta Puma markakoak. Ia beti eztabaidatzen zeuden eta, batzuetan, borrokan. Nik eskatu nien, mesedez, geldi egoteko, min ematen zidaten eta.

Une hartan, norbaitek negar egiten zuela entzun genuen. "15 neurrikoak, isildu, mesedez, horrela ezin da lorik egin!". 15 neurrikoen kutxak protestatu zuen— "Ez da hain erraza, txikiak dira eta!". Orduan, 40 neurriko zapatek, oso serio, esan zuten— "Mosedez, ganora pixka bat!". "Isildu!" —esan zuten "Pu"-k eta "Ma"-k. "Bikote pijoa!" erantzun zuen norbaitek, eta zapata eta kutxa guztiak eztabaidatzen hasi ziren. Eskerrak azkenean guztiok lo geratu ginela!

Hurrengo egunean erosi gintuzten, "Pu", "Ma" eta hirurok. Ni berriz bota ninduten zakarrontzira eta nire hurrengo bizitzak honako hauek izan ziren: koa-derno bat, egutegia, gaileta kutxa eta mila gauza gehiago.

Badakizu zer naizen oraintxe? Zure eskuetan duzun ipuinaren orria naiz eta haxe da nire biziaren bizitzarik zoriontsuena.

Aitonaren museoa

*Maitane Agirre Oiarzabal
Kirikiño Ikastola HLBHIP*

Aitonak gauza zaharrez beteriko museoa dauka, baina ez dira zaharrak antzinakoak baino, horrela esaten zaie eta. Antzinako gauzek urte mordoa dute baina ez dira zaharrak dir-dir egiten dutelako.

Aitonaren museoan dir-dir handiena egiten zuena txanpon bat zen. Orain bertan ez dagoen txanpon bat. Txanpon hori aitonari bere aitonak, zeruan dagoenak, eman zion. Zerura joateko zaharra izan behar duzu eta hilda egon. Pertsona gazte bat ere joan daiteke. Esate baterako, bizikletaz bakarrik baldin bazoaz Udalaxe ondoko kaletik, auto asko dabil eta zapaldu ahal zaituzte. Eskolako haur bati horixe gertatu zitzaion.

Nik primeran dakit museo bat zer den, aitonak bat daukalako. Museoa da gauza pila bat dagoen lekua eta gauza horiek dagoeneko ez dira baliagarriak baina badute balioa. Horrexegatik daude bertan.

Museoan dir-dir egiten duten txanponak egon behar dira eta gauza ilun-ilun bat ere bai, antzinako lisa-burdina adibidez... Beste mota bateko lanparak ere egon behar dira, kriseiluak deitzen direnak eta ez dutenak pilarik ez ezer. Aitona oso jakintsua da eta gauza asko daki kriseiluei buruz ere. Horietako batzuk oso-osorik dakizkit buruz oso barregarriak direlako. Honakoa adibidez:

“Mutil kozkorra nintzenean, —horrela kontatu zidan aitona— luxu askorik ez genuen —eta horrek esan nahi du pobreak zirela urmaeleko amaren moduan— baina asko dibertitzen ginen. Baserrian dantzaldiak izaten genituen gauetan krisei-lua esekitzen genuen sabaitik, argia egiteko. Behin batean, bi lagun ados jarri ginen dantzaldiko neskarik politenak aukeratzeko. Orduan ezkutatuta geneukan makila hartu eta kriseiluari jo genion apurtu arte eta ilunpetan geratu ginen. Gero ezertxo ere ikusten ez zenez ez zekiten nor izan zen. Orduan nik, banekienez non zegoen gustukoen nuen neskatoa, berarengana hurbildu eta musu ederra lehertu nion ahoan eta gero berak belarrondoko ederra lehertu zidan aurpegian.

—Bene-benetan gertatu al zitzaizun hori, aitona? —galdetu nion.

—Tira! Egia esateko, niri neure aitak kontatu zidan. Berari gertatu zitzaion. Nire garaian ez ziren horrelako dantzaldiak antolatzen. Nik ez ditut gogoratzen. Istorio hori oso barregarria da, benetako musuak ez direlako lehertzen, ezta belarrondoak ere. Ez dira lehergailuak. Lehertuz gero, aurpegia txiki-txiki eginda gertuko litzateke eta hori gezurra da”.

Aitonaren museoan Txinako liburuak ere badira. Nik badakit Txinakoak direla orriak hori-hori dituztelako eta Pili Canosak esan zidan, eta bera azkar-azkarra da, horiak badira, Txinakoak direla.

Eta hala bazan eta ez bazan, sar dadila kalabazan eta irten dadila Bilboko plazan.

AMAIERA



BART GAUEKO MISTERIOA

Sara Fernández Uria
Felix Serrano LHI



Parisen, abenduaren 2an.

Eguneroko kuttuna:

Atzo ikusi nuena kontatzeko beharrean nago, inoiz ikusi gabeko gauza da eta.

Ni lotan nengoela, oihu bat entzun nuen gau erdian. Leihotik begiratu nuen eta nire etxe aurreko etxean neska bat ikusi nuen. Hilda zegoela iruditu zitzaidan eta haren atzetik mutil bat beltzez jantzita zegoen.

Poliziari deitu nion. Esan nien gertatutako guztia eta esan zidaten goizean ikertzen hasiko zirela.

Ni detektibe pelikulen eta liburuen irakurle eta ikusle amorratua naizenez, nire kabuz ikertzen hasiko naiz.





P

arisen, abenduaren 3an:



Eguneroko kuttuna:

Gaur euria ari du eta, altxatu ostean, nire etxe aurreko etxean sartu naiz inork ikusi gabe.

Barruan nengoela, etxea hutsik ikusi dut. Ate batzuk giltzaz itxita zeuden eta ez dela inor bizi ematen du.

Ez dut gaur ezer entzun ezta ikusi ere baina ezin dut inor sartzen ikusi, sarre-rako atea kalearen beste aldean dago eta.

P

arisen, abenduaren 4an:

Eguneroko kuttuna:

Badira hiru egun ezer ez dakidala eta ez dut uste argituko denik. Poliziek deitu egin didate eta ez dakitela ezer esan didate, arrastorik ez.

Esan beharra dut beldur naizela eta jendea zoratuta nagoela pentsatzen ari da.

P

arisen, abenduaren 5ean:

Eguneroko kuttuna:

Gaur arratsaldean zaratatxo bat entzun dut kalean eta begiratu dudanean jakin dut polizia zela.

Kalera irten naiz poliziari laguntzeko eta gogoratu dut beste egunean ate batzuk giltzaz itxita zeudela eta poliziarekin haien atzetik zer dagoen ikusi ahal izan dut (kuriositate handia nuen).

Ate batetik sartu gara. Ez zegoen ezer, bakarrik traste zaharrak eta garrantzi gabeko gauzak. Horrela egin dugu ate guztiekin eta ezertxo ere ez zegoen.

Poliziak esan dit ia lotan nengoen baina nik ezetz esan dut eta ezinezkoa zela inor hil ez delako.





P

arisen, abenduaren 6an:



Eguneroko kuttuna:

Bueltak eta bueltak eman ondoren pentsatu dut amets bat izango zela eta hori pentsatzen dut baina nire barruan zerbaitek egia dela esaten dit. Gero nire etxe aurreko etxearen lorategia ikustera sartu naiz baina ez dut ezertxo aurkitu.

P

arisen, abenduaren 7an:

Eguneroko kuttuna:

Pentsatu behar dut. Horregatik opor batzuk hartzea erabaki dut, Erromara adibidez.

Ez dakit zenbat denbora egongo naizen, aste bat edo bost egun baina niretzat garrantzitsuena da hau guztia ahaztea.

Bidaiaetzea asko gustatzen zait, benetan.

P

arisen, abenduaren 8an:

Eguneroko kuttuna:

Badaukat Erromara joateko bidaia hartuta. Bihar goizean aterako da hegazkina. Hau ondo etortzea espero dut, dena burutik kentzeko. Bakarrik pentsatzea rekin dardarka hasten naiz. Espero dut Erroman primeran pasatzea opor hauek merezi ditut, ezta?

E

roman, abenduaren 9an:

Eguneroko kuttuna:

Erromara heldu naiz eta hotela benetan zoragarria da, luxuz betea. Gaur oso nekatuta nago, ezin dut ia idatzi ere egin.

Gaur deskantsatu egingo dut eta bihar Erroma ikusten hasiko naiz.





Erroman, abenduaren 11n:



Eguneroko kuttuna:

Atzo ezin izan nizun idatzi egun guztia Erroma ikusten egon nintzen eta. Gauza pila ikusi ditut: Kolisioa, Vatikano hiria, museoak, katedralak,...

Gero afaltzera joan nintzen jatetxe batera, pizza bat jan nuen benetan gozoa.

Gaur ere jatetxe batera joan naiz eta pasta jan dut, oso gozoa ere bai.

Bi egun daramatzat Erroman eta primeran ezagutuko banu bezala dirudi.

Atzo hotelean nengoela nire ohera sartu eta lo geratu nintzen.

Erroman, abenduaren 13an:

Eguneroko kuttuna:

2 egun hauetan ezin izan dut idatzi oso lanpetuta egon naiz eta Erroma ikusten. Pena ematen dit bihar itzultzeak baina bidaiak normalean ez dira betirako.

Eguerdian hartuko dut hegazkina; gauza pila bat erosi ditut lagunentzat eta familiarentzat.

Parisen, abenduaren 14an:

Eguneroko kuttuna:

Gaur Parisera heldu naiz eta gaur arratsaldean zinemara joan naiz eta benetan gauza harrigarria gertatu zait.

Zineman "Argi misterioitsua" deitutako pelikula ikusten nengoela, nik ikusitako neska-mutilak ikusi ditut. Benetan barregarria da eta poliziari dena esan diot. Orain ulertzen dut, ni ez nengoen bitartean amaitu egin dute pelikula eta atea kalearen beste aldean zegoenez ez nuen ezer ere ikusi. Gaur telebistan agertu naiz eta jende guztiak pelikula zela jakin du.

Niretzat hau oso pozgarria da eta orain ez dut pentsatzen zoratuta nagoenik. Bai istorio polita!







*Martin Ruiz Azkarate
Felix Serrano LHI*

Euskal Herriko herri batean, hamaika urteko mutil bat bizi zen. Bere izena Jon zen eta ordenagailuak eta makinak atsegin zituen oso. Nahi zuena nahi zuen momentuan lortu ohi zuen.

Joko berri bat kaleratu bezain laster erosteko prest zegoen. Aste hartan futboleko joko bat erosi nahi zuen. Amak, garestia zela eta bere urtebetetzera arte itxaroteko esan zion, baina Jonek ez zuen amore eman nahi.

Arratsalde batean, amak erosketetara joan behar izan zuen eta Jonek berearekin joan nahi izan zuen. Itsulapikotik dirua atera zuen jokoaren erosteko asmoz.



Dendaz denda ibili ziren eta Jonek ez zuen ezer esaten, bere denda preziaturara ailegatu arte.

Han, amak alkandora bat erosten zuen bitartean, komunera joateko beharra zuela esan zion amari eta disimuluz jokoen solairura igo zen, inork jakin gabe, jokoa erosteko asmoz.

Dendariari eskatu zion jokoa baina bukatuta zegoela erantzun zion. Jon lur jota geratu zen eta amarengana itzuli zen. Dendatik irten zirenean burumakur zihoran, negar egiteko gogoarekin.

Amak gertatutakoa susmatzen zuen eta galdetu zion zergatik zegoen hain goibel baina Jonek ez zion erantzun. Arazo larria izango balu bezala, jarraitu zuen etxera iritsi arte. Han, amak ezer esan barik, aldizkari bat erakutsi zion.

Aldizkarian ume batzuen argazkiak zeuden. Neska-mutil batzuk, bera baino gazteagoak, zabortegetan ibiltzen ziren egun osoan, gurasoentzako diru bila. Hamar zentimo lortzeko eguna eman behar izan zuten.

Joni haserrea joan zitzaion eta guztiz lotsatuta geratu zen.





*Javier Díez Caballero Gallo
Deustuko Ikastola IPI*

Bazen behin Mikel izeneko mutikoa. Etxe oso handia zuen eta bere logelan liburutegi handia, ohea eta ordenagailua.

Mikel, egunero, etxeko lanak bukatu bezain laster, ordenagailura jolastera joaten zen eta ez zien liburutegiko liburuei kasurik egiten.



Liburuak oso haserre zeuden inork ez zituelako irekitzen, ez irakurtzen.

Egun batean, Mikelen ama erosketak egitera joan zen eta Mikel ordenagailuan jolasten geratu zen.

—A ze aspergarria! —esan zuen “Mortadelo eta Filemonen” komikiak.



—Zer dauka ordenagailuak guk ez daukagunik? —galdetu zuen “Zipi eta Zaperen” komikiak.

—Ordenagailurik ez balego, liburuak irakurriko lituzke —esan zuen “Munduari bira 80 egunetan” liburuak.

—Arrazoi duzu, baina horretarako ordenagailua amatatu eta argiak itzali beharko ziren —esan zuen “2000 legoa ur azpitiko” liburuak.

—Eta argiak eta ordenagailua itzaltzen baditugu? —esan zuen “Zipi eta Zaperen” komikiak.

—Idea ona! —esan zuten liburuek eta plana prestatu zuten: “Mortadelo eta Filemonen” komikia mahaira jaitsi eta argiak amatatu behar zituen, “Zipi eta Zaperen” komikiak ordenagailua itzali behar zuen eta “Munduari bira 80 egunetan” liburua eta “2000 legoa ur azpitiko” liburua zaintzen geratu behar ziren.

Lehenengo, ordenagailua amatatu zuten eta gero argiak.

Mikelek linterna hartu zuen eta, ez zekienez ordenagailua nola piztu, “2000 legoa ur azpitiko” liburua hartu eta irakurtzen hasi zen. Ondoren, “Munduari bira 80 egunetan” liburua irakurri zuen eta azkenik komikiak.

Ama etxera itzuli zen eta Mikel irakurtzen ikusi zuenean poz-pozik jarri zen eta liburu batzuk erostera joan zen.

Harrezkeroztik, ez zuen ia inoiz gehiago ordenagailua erabili eta liburu asko irakurri zituen.



Nire bizitzako unerik ikarragarriena

*Aroa Rodriguez Bolado
Gabriel Aresti LHI*

Kaixo, ni Aroa naiz 11 urteko neska. Orain kontatuko dizuedan istorioa Gorbeia mendian gertatu zen duela urtebete, gutxi gorabehera. Igande gehienetan mendira joaten gara eta, beti bezala, igande hartan ere mendira joan ginen, Gorbeia mendira, hain zuzen ere.

Autoan, motxilak sartu, gero musika jarri eta Gorbeiarantz abiatu ginen. Ni musika entzuten eta game boy-arekin jolasten ari nintzen "Super Mario" jokora. Gorbeia aldera heldu ginenean, autotik bi makila hartu genituen, eta poltsan kata-loxak, janari apurtxo bat eta, nola ez, ura ere sartu genuen. Gorbeiarantz igotzen hasi ginen eta bidean animalia gutxi ikusi nituen: txoriak, zaldiren bat, behiren bat eta artaldeak.

Larunbatean, aitari Gorbeiara igotzeko biderik onena suebakietatik joatea zela esan zioten eta guk halaxe egin genuen, suebakiko bidea aurkitu eta handik joatea erabaki genuen.

Suebakitik ikusten zen paisaia polit-polita zen, mendi ugari dago eta Gorbeia inguruan. Suebakiko bideak aldapa handia zuen eta sigi-saga joan behar izan genuen, beraz handik joateak gehiago nekatzen zuen.



Suebakiko bidea oso luzea zen eta ez zela inoiz amaituko zirudien. Nire belau-nak neka-neka eginda zeuden eta min handia ematen zidatenez, pixkana-pixkana nire gurasoengandik urruntzen hasi nintzen. Gainera egun horretan laino handia zegoen eta ez zen ezer ikusten. Orduan konturatu nintzen ezin izango nuela atsedetik hartu gailurrera heldu arte. Beraz, ura edan eta indarrak berritu nituen eta gurasoak antzeman nituenean, amari esan nion:

—Ama, mesedez, atsedentxo bat egin ahal dugu?

Eta berak honela erantzun zidan:

—Bai, alabatxo, guk ere atsedetik hartu behar dugu.

Bost minutu pasa ondoren, berriro hasi ginen ibiltzen eta, handik hamabost minututara edo, suebakia atzean utzi genuen. Orduan, beste bide bat ikusi nuen. Hura ere amaiezina zen baina ez nintzen larritu, zeren eta belardi handi-handiak zeuden. Belardietan kakalardo mordoa zegoen eta nik bizpahiru hartzen nituen eta ehun metro gorago askatzen nituen. Baina aspertzen hasi nintzen eta amari galdetu nion ea noiz helduko ginen gailurrera. Amak erantzun zidan ia-ia gailurrean geundela, baina laino itxia zegoenez ez zela gurutzea ikusten.

Aita aurrerago zihoan eta bat-batean gelditu eta poz-pozik esan zigun:

– Heldu gara! Begira gurutzea!

Orduan, amak eta biok abiadura bizkortu genuen eta amen batean heldu ginen gurutzerara.

Gailurrean jende mordoa zegoen eta Bilbo Zaharrean geundela zirudien. Batzuk etzanda zeuden, beste batzuk ingurutik paseatzen eta besteak ikuspegiaz gozatzen. Baina hotz izugarria egiten zuen eta, jotzen zuen haize zakarra kontuan izanik, nik ez dakit nola egon zatekeen hainbeste jende.

Gu zelai batean eseri ginen. Aitak kataloxak atera zituen eta, berak ikuspegiaz gozatzen zuen bitartean, ni amaren alboan jarri nintzen. Neka-neka eginda eta



izoztuta nengoenez amaren ondo-ondoan eseri nintzen bere berotasunaz babesteko. Amak jaki batzuk eman zizkidan; lehenengo, gaztatxoak baina hotzaren hotzaz gogortuta zeuden; gero, banana jan nuen eta hortzak izoztuta gelditu zitzaizkidan banana mamian itsatsita; azkenik, laranja baina, hotzaren hotzaz ezin izan nuen bukatu. Orduan, aitarekin ikuspegiaz gozatzen egon nintzen. Ondoren, dena batu eta jaisten hasi ginen.

Pozik nengoen. Etxerantz gindoazen eta hotza eta nekea

bukatuko ziren. Baina, bat-batean, aita kataloxak gailurrean ahaztuta utzi zituela konturatu eta itzuli egin zen kataloxen bila. Amak eta biok jaisten jarraitu genuen. Aldapa handia zen eta harriz beterik zegoen. Beldurrez dardarka nindoan, baina bizkor-bizkor jaitsi nintzen harri handi bateraino eta han eseri ginen ama eta biok aitaren zain. Azkenean agertu zen baina ez zituen kataloxak aurkitu eta penatuta geunden. Aurrera egin genuen arin-arin, gelditu barik. Azkenean, suebakia igaro eta autora heldu ginen.

Auto barruan amak eta biok botak erantzi genituen oinei atsedena eta berotasuna emateko, baina aita ezin izan zuen, gidatu behar zuen eta.

Ordu biak ziren eta ni gosez amorratzen nengoen. Jatetxe bat aurkitu eta han bazkaldu genuen. Makarroi goxo-goxoak jan nituen, ondoren, haragia, arrautza eta patata frijituak eta postrerako izozkia.

Bazkal ostean etxera joan ginen; arropa erantzi, dutxa hartu, pijama jantzi eta ura azukre eta bikarbonatoarekin edan nuen hurrengo egunean minik ez izateko giharretan. Baina, nahasketak ez zuen eraginik izan nire gorputzean eta, zoritxarrez, biharamunean, ohetik altxatzean ezin izan nuen mugimendurik egin nire gorputzeko gihar guztietan minik sentitu gabe. Eskolan ez nintzen jolastokira joan lagunekin jolastera eta klasean geratu nintzen etxerako lanak egiteko aprobetxatuz.

Halako astea pasa nuen! Gorputz osoa izan nuen minduta eta sarritan pentsatu izan nuen hobe etxean geratu izan banintz, mendira joan beharrean. Ez zait sekula santan ahaztuko Gorbeira joan nintzen eguna.

Agur irakurle eta ondo pasa Mari Tomasa!

C
KATEGORIA
(DBHko 1. eta 2. mailak)



Nire aitona punk-a zen

*Markel Pisano Berrojalbiz
Karmelo Solokoetxe BHI*

Azkenean iritsi zen 1989ko uda eta lehenengo astea aitona-amonen etxean pasatu behar izan nuen.

Iruñeara iritsi ginenean han zegoen amona, autobus geltokian itxaroten, eta betiko harrera ona egin zigun.

Gero gurasoak agurtu eta autobusean sartu nintzen amonarekin.

Langile-auzo batean jaitsi ginen eta amonaren etxetik trumoi gisako musika entzuten zen. Ez, ez zen musika klasikoa... "punk", "oi!" eta horrelakoa baizik. Amonak begiratu eta jarraian esan zidan:

—Jainkoak barka daiala! Betiko zaratak!

Eskailera zahar batzuk igotzen hasi ginen eta zarata hori geroz eta gogorra-gozen.

Atea ireki zuenean ke-hodei izugarria atera zen. Ez zen sutea zegoelako, porro ugari erre zituztelako baizik.

—Kattalin, zenbat bider esan dizut umezurtzik ez ekartzeko etxera!!

—Baina, Boni, zure iloba da eta! Ale, eman bi muxu.

Argi zegoen gutako inork ez genuela hori egin nahi. Nazka handia ematen zidan ni baino 63 urte zaharragoa zen baina 73 zituela konturatu nahi ez zuen

agure hark. Gezurrezko kresta handi eta berdea zuen, sudur puntan ilez beteriko orbana, aurpegia zimurtuta eta punken janzkera.

Hurrengo egunetan nabaritu nuen aitonarekiko harremanak eskasak zirela eta gau guztietan ahalegintzen zela gazte batzuekin "botelloia" egitera edo punk gazte batzuekin borrokatzera joaten. Bitartean, nik bizkotxoak egiten nituen amona Kattalinekin edo telebista ikusten nuen.

Gau batean goizaldeko lauretan iritsi zen etxera "kolokauta". Sartzerakoan lanpasarekin irristatu eta lurrera erori zenean izugarrizko zarata atera zuen. Amona eta biok esnatu egin ginen. Sudurra odolez beteta zuen arren ez zuen ospitalera joan nahi, baina azkenean lortu genuen hara eramatea.

Bost ordutan etxean ginen berriro eta, oso arraroa bazen ere, Bonik Iruñea bisitatzera eraman ninduen.

Alde zaharrean geundela jende guztiak begiratzen zion eta ni beraz lotsatzen nintzen eta bera, beti bezala, nitaz. Gozoki batzuk lapurtu zituen eta erdiak niri eman zizkidan, beste erdiak bere hiru hortzekin jan zituelako.

Etxera bueltatu ginenean han zegoen amona nire osabarekin hitz egiten. Aurpegi tristearekin agure-etxe bateko orri sinatuak erakutsi zizkigun. Anbulantzia ordu batean iritsiko zen aitona leku aspergarri horretara bidaltzeko.

Bat-batean ni eskutik hartu eta korrika alde egin genuen etxetik. Nire osaba, gure atzetik hasi zen korrika. Sinestezina zen! Benetan azkar mugitzen zen gizon zahar hura, baina zoritzarrez, errepide bat gurutzatzean auto batek harrapatu egin zuen.

Gau osoa pasatu genuen ospitalean. Hurrengo goizean, Bonifazio esnatu egin zen eta lore sorta bat oparitu genion.

—Hippy nazkagarri bat naizela uste duzu, ala? —esan zidan.

Medikuak oso ahul zegoela eta bi astetan ospitalean geratu beharko zuela atsedeen hartzen esan zigun. Aitonarekin bakarrik hitz egiten nengoela, oxigenoa kentzeko esan zidan, leku hori uztean agure-etxera joan beharko zelako bizitzera. Eztabaida askoren ondoren kasu egin nion eta gero lokartu egin nintzen.

Esnatu nintzenean aitona ez zegoen eta, horren orde, ohartxo bat zegoen. Hauxe jartzen zuen: "Medikuak sendatuta nagoela esan du eta agure-etxera eraman naute".

Taxi bat hartu eta leku horretara joan nintzen. Heldu nintzenean kristoren iskanbila zegoen. Zaintzaile guztiak aitonaren atzetik zebiltzan eta bera pareta igozen zegoen handik alde egiteko.

Hurrengo egunean Bilbora bueltatu nintzen gurasoekin. Amona Kattalinekin eskutitz bat bidali zidan aitona egunero ihes egiten saiatzen zela esanez. Hiru urteren buruan hil egin zen estresagatik edo asko aspertzen zelako.

Oraindik gogoratzen dut aste hura, pasa den astea izango balitz bezala. Gaur, larunbata, hogeitaz geroago, hilerrira joango naiz bere hilarria bisitatzera baina, oraingoan, lorerik gabe.

Benetako familia

Alex Zarate Casaseca
Miguel de Unamuno BHI

18 urte nituela, eskola batean lan egiten nuen eta bi urte pasa eta gero utzi egin nion eskola horretan lan egiteari. Eskola hori Otxarkoagan zegoen. Urte bi geroago han ezagututako lagun batekin topo egin nuen kalean eta galdetu zidan ea klaseak eman ahal nizkion gaixo egoteagatik eskolara joan ezin zen ume bati. Umea Oiarganeko txaboletan bizi zen gurasoekin eta amamarekin. Orduan ni klaseak ematen hasi nintzaion umeari baina nik medikuntzan lan egiten zuen anaia neukanez, nirekin joateko eskatu nion umea bizi zen txabolara umea zelan zegoen ikus zezan. Anaia eta biok joan ginen; anaiak aurrerantzean eskolara joateko esan zion, baina, hilabete batzuk eman zituen ez eskolara joan gabe, nik berarekin jarraitzea erabaki nuen.

Ekainera arte jarraitu nuen berarekin. Nire ustez, familia hori behartsua zen, baina, bestela, beste familien modukoa. Egun batean haien etxera heldu nintzen eta ama bakarrik zegoen mutila oraindik ez zelako heldu eta esan zidan bere familiaren historia kontatuko zidala:

"Ni prostituta nintzen eta Las Cortes kalean bizi nintzen etxe batean beste prostituta batekin. Egun batean nire etxeko lagunak ume bat eduki zuen. Hurrengo egunean bat-batean umearen ama, nirekin bizi zen emakumea, desagertu egin zen, bere semea etxean utziz. Neu nintzen umeak zeukan ezagun bakarra.

Garai hartan baneukan bezero bat, niregana askotan etortzen zena eta nirekin maitemindu zena. Nire lanbidea uzteko eskatu eta hirurok, gu biok eta umea, elkarrekin joango ginela bizitzera esan zidan.

Ez geneukan diru asko. Nire gizona kamioilaria zen eta nik, prostituzioa utzita, ez neukan dirurik irabazteko modurik. Garai hartan Ollarganen txabolak zeuden eta hango bat lortu genuen. Han hasi ginen hirurok bizitzen.

Askotan, etxera etortzen ginenean, kalean bizi zen emakume zahar bat ikusten genuen. Emakume hark ez zeukan ezer, ez zeukan inor. Guri pena ematen zigun eta senarrak gure txabolara ekartzea proposatu zidan. Ni ados egon nintzen eta harrezkero laurok elkarrekin bizi gara, benetako familia bezala. Horrela ezagutu gaituzu zuk”.

Horrela amaitu zuen, gutxi gorabehera, bere kontakizuna. Harrituta geratu nintzen. Beraiekin bederatzi hilabete eman nituen, eta bederatzi hilabete horiek pasatu ostean konturatu nintzen “amama” ez zela amama, “aita” ez zela aita, “ama” ez zela ama eta “semea” ez zela semea. Baina orain, urte asko pasatu ondoren, konturatu naiz hori benetako familia zela. Gutxitan ikusi ditut elkar hainbeste maite duten pertsonak.

Aspaldi bota zituzten Ollarganeko txabolak eta han bizi ziren asko Txurdinagara joan ziren bizitzera. Nik galdu nuen nire lagunak helbidea eta, harrezkero, ez ditut berriro ikusi.

Hau benetako istorioa da.

Kolpe gogorra

Miguel Prieto Recio
Miguel de Unamuno BHI


Duela urte asko kezkatzen ninduen, baina ez nuen inoiz espero gertatuko zenik. Goiza zen. Gosaldu ostean, nire logelara nindoala, gurasoek haiengana joateko esan zidaten. Orduantxe hasi zen nire kez karen ondorioa. Amak, malko artean, zeozer gertatu arren biok beti maitatuko nituela zin egiteko esan zidan. Nik ezin nuen sinetsi, baina nire beldurra baieztatu egin zen: gurasoak banandu egingo ziren.

Nire logelara joan nintzen negar egitera eta giltzapetu egin nintzen ordubete inguru, amak atea jo zuen arte. Oso kaltetua zegoen eta hitz egiten hasi ginen; zergatiak azaldu eta epaiketa noiz izango zen azaldu zidan.

Hurrengo egunean nire lagun minari esan nion gertatutakoa, hau da, nire gurasoak bananduko zirela eta, nire harridurarako, egingo nuen guztian lagunduko zidala esan zidan. Orduan nire gurasoak elkartzeko moduak pentsatzen hasi ginen.

Lehenengo modua biak gustuko zituzten lekuetan elkartzea zen. Gutunak egi ten hasi ginen baina, gurasoen letra egitea oso zaila zenez, arratsalde osoa eman genuen. Hurrengo urratsa gutunak bidaltzea zen eta azkenik itxarotea. Zoritzarrez, nire letraz oroitu ziren eta plana pikutara joan zen.

Modu hori ez zen egokia izan oso ezaguna baitzen, baina epaiketa hurbil zegoen eta ideia gutxi bururatzen zitzaizkidan. Azkenik nire amaren abokatuarekin



geratu ginen, lehendik ezagutzen bainuen, eta eskatu nion amari esateko aitarekin hitz egiteko.

Hurrengo egunean abokatuak, saiatu arren, ez zuela lortu esan zidan. Orduan loreak bidaltzea bururatu zitzaidan. Lotsa ematen zidan loradendan loreak eskatzea baina egin nuen. Lore asko zeudenez ez nekien zein hartu eta azkenean arrosak aukeratu nituen. Oso garestiak ziren baina berdin zuen merezi zuelako. Ohartxo bat egin eta bidali egin nituen. Ama ez zen konturatu letraz, baina ez zuen ezer egin horren ondoren.

Hurrengo egunean, bakarrik egun bat geratzen zenean, ideia zoragarria bururatu zitzaidan: gurasoentzako afari erromantikoa egitea. Hori egiteko nire lagunaren laguntza behar nuen gauza asko behar baitziren; adibidez, janaria, platerak eta abar. Nik etxea apaindu eta mahaia jarri nuen, nire lagunak janaria eta kandelak erosten zituen bitartean. Jateko kabiarrak jarri genuen, baina eginda erosi behar genuen guk ez genekielako egiten; edateko auzokideari eskatu genion ardo botila garesti bat erabili genuen. Arratsaldeko zortzietan dena prest zegoen eta nire laguna joan egin zen. Nik gurasoak etorri arte itxaron nuen. Afarira etorri zirenean nik egin nuela esan nien, baina egongela sutan zegoen kandela baten suak gortinak piztu zituelako. Aita gortina itzaltzera joan zenean sabaia jausi egin zen. Orduan amak suhiltzaileei dei egin eta sabaia baztertzen saiatu zen. Azkenean suhiltzaileek sua itzali zuten.

Ni ez nengoen harro etxeari sua emateagatik, baina bai horrek ekarri zituen ondorioengatik. Azkenean, nire onerako, ez ziren banandu.

adiskidetasuna ez da beti erraza

Ane Julian Arranz
Artxandape Ikastola HLBHIP

Ring, ring!!! Zelako logura!!! Astelehen goiza zen uffff.... gainera eskola berrian hasi behar nuen. Aitaren lanagatik beste hiri batera joan behar izan ginen bizitzera aurreko hilabetea eta, nola ez, eskola berria!! Ondo gosalduta nuen, amari bi muxu eman eta eskolarantz abiatu nintzen.

Hara ailegatzean hainbat aurpegi ezezagun ikusi nituen. Zelako lotsa!! Nire klase berrian sartu nintzenean neska-mutil guztiak niri begira zeuden eta ohiko galderak egiten hasi zitzaizkidan: nola duzu izena? Nondik zatoz? Andereñoak neure burua aurkezteko eskatu zidan eta aurkezpena egin behar izan nuen: “Kaixo, nire izena Amaia da eta Bilbotik nator”.

Jolas ordua heldu zen eta neska bat hurbildu zitzaidan. Nerea deitzen zen. Nahi banuen berarekin egon ahal nintzela esan zidan eta baietz erantzun nion!! Hitz egitean konturatu ginen zaletasun berberak genituela eta denbora gutxian oso lagun minak egin ginen.

Egun baten klaseko neska batzuk galdetu zidaten ea Nerea arraro ikusten nuen eta nik ezetz esan nien. Ainara izeneko neska istorio bat kontatzen hasi zen: “Iaz, gimnasiako klasean geundela, Nereari mantxa bat ikusi genion bizkarrean eta iaiztik hona handitu egin zaio. Beste alde batetik, oso triste eta arraro dabil.”

Nik ez nion garrantzi handirik eman, oso pozik nengoelako lagun berriarekin. Hurrengo egunean gimnasia geneukan eta Nereak mantxarik zeukan begiratu nuen. Egia zen! Zelako mantxa!

Gau horretan dena kontatu nion amari eta esan zidan ez zekiela zer izan ahal zen baina aholkatu zidan lasai egoteko eta zer gertatzen zitzaion galdetzeko. Hori egin nuen eta bere erantzuna hau izan zen: “Amaia, gaur arratsaldean seiak alde-
ra, etorri nire etxera eta han dena kontatuko dizut.”

Oso arduratuta geratu nintzen. Zer izango ote zen? Etxera joan, zerbait askal-
du eta Nerearen etxerantz abiatu nintzen. Heldu nintzenean, sofan eseri nintzen eta oso triste jarri ninduen istorioa kontatu zidan: “Zuk ikusi duzun mantxa lehen oso txikia zen, baina handiagotu egin da. Egun baten sendagilearengana joan nintzen. Berak frogatzen zuen zizkidan eta gaixotasun bat nuela esan zidan: minbizia”.

Oso triste geratu nintzen eta biok negarrez hasi ginen. Horrela egon ginen ni etxera joan nintzen arte. Han amari kontatu nion guztia eta ama harrituta geratu zen. Amak azaldu zidan minbiziarekin jendea hiltzen zela. Nik hori banekien baina gogoz pentsatzen nuen Nerea ez zela hilko eta gaixotasuna gaindituko zuela.

Hilabeteak joan hilabeteak etorri, Nerea eta ni lotuago geunden, baina nik oso txarto eta ahul ikusten nuen Nerea. Askok faltatzen zen klasera, ia egunero sendagilearengana joaten zelako. Ni oso arduratuta nengoen ez nuelako nahi Nerea hiltzea. Heriotzatik bizitzatik baino hurbilago ikusten nuen. Nereak bizirik jarraituko zuen itxaropena nuen oraindik.


Egun batean Nerea, nire etxean zegoela, oso gaixorik jarri zen eta ospitalera joan behar izan ginen Nerearen gurasoei deitu eta gero. Ospitalean denbora luzea pasatu eta gero, zoritzarrez bere azken hitza esan zuen: “**agur**”. Negarrez eta oihuka hasi nintzen, baina ezin zen ezer egin. Nerea joan egin zen.

Nik ez nuen inoiz pentsatu nire adineko neska bat minbiziak hil zitekeenik eta gutxiago egun batetik bestera.

Aste batzuen ondoren, Nerearen gurasoek deitu eta Nerearen egunero-koa erakutsi zidaten. Nitaz oso gauza politak idatzita zeuden, baita alaiak ere. Negar egiteari ekin nion, baina aldi berean oso pozik nengoen inoiz ez nituelako entzun hain hitz ederrak.

Irakurritakoa ez diot inori esango, baina nire bihotzean geratuko da betirako.





Nerea Sánchez Bediaga
Artxandape Ikastola HLBHIP

Jon mutil gaztea zen. Ama hil zitzaion 4 urte zituenean eta aitarekin bakarrik igaro zituen orain arte bizi izandako 16 urteak.

Langilea zen eta ikastolan nota bikainak ateratzen zituen. Normala den moduan, ikastolan noizbehinka irakasleek ikasleei galdetzen zieten nagusitan zertan lan egin nahi zuten. Ikasle guztiek zekiten baina Jonek ez eta berari beldurra ematen zion nagusitan zer izan ez jakiteak.

—Nola jarriko diogu izena, maitia?

—Ez dakit, Jon gustatzen al zaizu?

—Izen ederra, baina... neska bada?

—Ez dizut esan, baina gaur goizean sendagilearengana joan naiz eta mutila dela esan dit.

—Ze nolako poza!! Orduan Jon deituko diogu, ezta?

—Bai, ederra da.

Miren eta Eder ziren Jonen gurasoak eta ederrak eta gazteak ziren. Beraiek maitemindu, berehala ezkondu eta familia izatea pentsatu zuten.

Jonen amak ez zuen etxetik kanpo lanik egiten eta aita abokatua zen.

—Ze mutiko ederra jaio den, Miren!

—Egia da! Munduko mutilik ederrena da!

Jon jaio, eta berehala joan ziren etxera familia osoarekin ospatzera.

Denbora pasa eta Jonek 4 urte bete zituen. Bere burua garatzen ari zen eta bere inguruan pasatzen zena ulertzen hasi zen.

Egun batean Miren hil egin zen labana baten eraginez; bere burua hil zuen. Heriotza hori ez zuen inork ikusi, baina denek zekiten horren berri, Jonek izan ezik.

Amama Josefak Joni esan zion amak oporrak hartu zituela eta ibai batean bainatzen zegoela.



Denbora pasa eta Jonek gezur horrekin jarraitzen zuen. Jonek zerbait sumatzen zuen, baina ez zion inori ezer esan nahi.


Jonek 13 urte zituen eta ezin zuen gehiago. Gezur hori gezurra zela konturatu eta amamari galdetu zion:

—Amama, zergatik esan didazu gezurra? Nire ama ez dago oporretan ibai batean. Badakit aita eta ama banandu egin zirela amak lanik ez zuelako eta aitak gehiago ez zuelako jasaten berak dena ordaindu behar izatea!!

Jonek horietan urte guztietan uste zuena arrapalada batean esan zion amamari.

Bere amamak nahiago zuen Jonek hori pentsatzea, hilda zegoela pentsatzea baino.

Urteak eta urteak pasatu ziren eta Jonek, 20 urte zituela, ez zuen lanik. Liburuak idaztea gustatzen zitzaion eta egun batean, ibai baten ondoan jesarrita, egunko liburuan idazten hasi zen:



Jonek egunerokoa atzerantz bota zuen eta, bere amamak esandakoari jarraituz eta ama ikusi nahian, gorpuzta ibaian joaten utzi zuen.

D
KATEGORIA
(DBHko 3. eta 4. mailak)



Maitasunaren memoria laburra

*Irati Malatsetxebarria Elizegi
Gabriel Aresti BHI*

Igande goizero parkera abiatzen nintzen parrandaren osteko ajeak izerditan itotzera. Gogoz egiten nuen arineketan, haizearen kontra, hankak nekearen nekez ahultzen zitzaizkidan arte. Orduan belartza freskoan jesartzen nintzen, arnasestuka, inguruan gertatzen ari zenari ezaxola. Eta bertan jarrita, munduan ni eta liburua baino ez geundela, bezperan gertaturikoak zetozkidan gogora, taberna zuloetan barna bizitako abenturak.

Ez zen batere larunbat atsegina izan, ez. Egia esan, ezin izan zuen okerragoa izan. Betiko tabernan, lehen tragoak hartzen ari ginela, Ainhoaren deia jaso nuen: "Zatoz pisura ahal duzunean. Hitz egin beharra daukagu". Ainhua. Bi urte ziren bikote ginela. Aste Nagusian elkar ezagutu genuenetik ezin izan genuen bata bestearengandik bereiz bizi. Amodioaren amaraunak elkar harrapaturik ginduzkan eta zail egiten zitzaigun etorkizuna batera ez amestea. Akaso horregatik hautatu zuen neskak Bilbon ikastea; beharbada hargatik hasi nituen "jesuitenean" Euskal Filologia ikasketak. Ez zen aurretiaz harturiko erabakia, baina batera egoteko moldatu genuen etorkizuna, beharrianaren gustura.

—Joan beharra diat; Ainhua zain zegok.

Eta nire buruari zer gertatzen ote zen galdetzen niola, ikasle pisura urreratu nituen pausuak. Ez nuen oroitzen ezer txarrik egin izana. Azterketa garaiak amai-

tu berri genituen eta bi aste horietan ezer gutxi jakin nuen berari buruz, kontzentrazioaren legeak. Zapatu gauak aldiz, lagunekin igarotzen genituen beti. Hura zen "gure territorio libre" bakarra. Horregatik harritu ninduen horrenbeste bat-bateko deiak.

Atea ireki zuenean, inoiz baino ederra-go aurkitu nuen. Begietan dir-dir ezia zuen eta ezpainak preseski koloreztatuak. Soineko berria zeraman soinean, berdea. Biziki maite zuen Ainhoak berdea, bere begi urdinak nabarmentzen omen zituen. Hori zioen berak bederen; Urrun sumatu nuen ordea, aparteko liraintasun hartaz gozatzea ukatu nahi balit bezala. Baina pisu-kideak kalean ziren. Bakar-bakarrrik geunden eta apika geure maitasun habia sortzeko jarri zen horren apain; beharbada, nire irudimena zen urrinago igartzearen horren errudun; agian, inoiz baino hurbilago nahi ninduen. Eta horren lerden zebilen sukaldean, harat eta hona pare bat edalontzi bete ardo prestatzen, ezen nire begiek dantzan egiten zuten bere aldaken kulunkarekin. Betiko Ainhoa nekusan, 16 urterekin txosnako barran ezagutu nuena, ilargiak bisaia argitzen ziola. Bere onenean zegoen, aspaldiko partez; inoiz baino umeago aurpegiera irribera horrekin, inoiz baino helduago bere ibilera ziu-rrekin. Sofan eseri zen orduan, arnasa sakon hartzen zuela, eta bere mugimenduei jarraitu nien.

—Amaitu da, akabo.

Ez, gaurkoan ez zuen niretzat jarri soineko berria. Besteren batek edertu zuen bere maitasunarekin; zoriontsua zen berriz ere. Nire basoaren beiran bere aurpegia islatu zen, eta gure lehen gau hartako ilargipean bezain panpox zegoen, maiteminduta. Eroa da amodioaren kontua. Txikitan, amatzok eta aitatzok elkar maite dutela irakasten dizute. Urteek aurrera egin ahala, aldiz, bikoteak banantzen direla ohartzen zara, eta sexu bereko pertsonak ere bata bestearekin maitemindu daitezkeela.

—Joana da.

Sexu bereko pertsonak ere bata bestearekin maitemindu daitezke. Zer esan ez nekiela nengoen, edalontziko ardoari laguntza eskeka, hainbestetan egonda nengoen etxe hura arrotz bilakatzen zitzaidala. Joana, zarauztarra, bere betiko pisu-kidea. Zenbat denbora ez ote genuen elkarrekin igaro hirurok batera, afaltzen, karta jokoan, ...

Komunera joateko baimena eskatu nion. Bertan, kosmetiko poteen artean, xanpu poto erdi hutsa baino miserableago sentitu nintzen eta negar egin nuen luzaroan. Orduan errimel, hauts, hortzetako eskuila eta gainerakoak errukiturik ari zitzaizkidala niri so otu zitzaidan. Brastako batez jaurti nituen lurrera, etsiturik.

—Mikel, ondo zaude?



Urez busti nuen aurpegia eta ahal nuen bezain tente atera nintzen komune-
tik lehenik, etxetik gero, tabernara bidean.ADIO xume batekin agurtu genuen elkar.
Hori baino ez bizi izandako guztia atzean uzteko. Kosmetiko pila bat komune-
ko lurrean sakabanatuta eta bera soineko berdearekin Joanaren zain. Gurea ez zen
konpon zitekeen arazoa. Burumakur agertu nintzen tabernan eta koadrilakoei ger-
tatutakoa kontatzean, barre algaraka hasi ez ziren, ba! “Horren txarra al haiz
ohean?”, “beraz neska batek eman behar zioan hik ematen ez dioana?”. Eta ba-
tzuetan zeinen astakirtenak garen otu zitzaidan, desesperantzazko hasperen bate-
an. Gero, trago bat hartu genuen nire omenez. Gauean zehar horrelako erronda
askotara gonbidatu ninduten eta nire nahigabeak edalontzi hustu berriei so ahaztu
zitzaizkidan. Etxera heltzean, hogei eta hamar garagardo edanak nituen, tabernaz
taberna.

Biharamuneko burukomina inoizko okerrena izan zen. Garunek garezurretik
kanpo joan behar zutela zirudien, edota milaka inurri sartuta neuzkala bestela.
Txandala soinean jarri eta parkera joan nintzen arineketan, parrandako ajea ez
ezik nire goibeltasuna ere bide bazterrean uzteko. Begi nekatuak malkotan leher-
tzeaz zeuden, goibeltasunean igerian. Ainhua zen maitemindu ninduen neska eta
astero bere irribarrearekin zoriontsu sentiarazten ninduena. Ezin irudika nezakeen
bizitza bere laztan eta zirri barik. Parkeak ere ez zuen berdina ematen; belar fres-
koan ez zen betiko berde bizirik antzematen, orbela ohi baino hitsago pausatzen
zen lurrean.

Baina denborak aurrera egiten du guztiontzat. Eta bihotzeko gaitzak, poesia
umeletan esaten denaren kontrara, egunez egun sendatuz doaz. Unibertsitatean
ere, aztertzen ari ginen Sarrionandiaren poemek ilusioa pizten zuten nire aldarte-
an eta lainopetik berpiztuz nindoan apurka-apurka, mesfidati. Garai hartan egin
zuten topo nire begiek Maddalenenekin. Berde argiak ziren, alaiak, txinpartatsuak.
Eta berarekin parkean geratu nintzenean paseatzeko, zeraman soineko urdin ilu-
nak ederki ematen zion bere begiekin, berak hala uste izan ez arren. Egun horre-
tan nire begi niriekin parkearen berde kolorea biziberritzen ikusi zuten, orbela airo-
so erortzen zen eta eguzkiak argitzen zuen nire printzesa, izarra balitz bezala.

Aneren egunerokoa

María Madrazo Mediavilla
Ignacio Ellacuria BHI

Arratsalde osoan ez da eguzki izpirik ikusi. Arratsalde ilun eta tristea da eta euria etengabe ari du sukaldeko leihoan kolpeka. Ane urduri samar dabil afaria prestatzen. Gorkak, bere senarrak, duela hiru urte Pariseko galeria ospetsu batean erositako soineko beltza darama jantzita eta horren gainetik “Pays Basque” letra berdez jartzen duen amantal garbia. Zuriñek eta Arkaitzek gaur ez dute etxean lo egingo, biak Arabako barnetegi batean daude eta Ane bakarrik sentitzen da. Bi egun noiz pasatuko diren zain dago eta bere babes eta konpainia bakarra mahai gainean dagoen koaderno horixka da. Eguneroko hori bere altxorra da. Bere sekretu guztiak han biltzen dira, bere sentimendu guztiak, bere bizipenak... bere bizitza. Sekretu horiek noizbait argia ikustea espero dute, baina Ane oraindik ez dago prest.

Egunero bezala, sukaldean, hormaren kontra dagoen aulkian jesarri eta koadernotxoa zabaldu du. Boligrafoa hartu eta idazten hasi da.

Billbon, urriaren 28an

“Ez dut ezer ulertzen, ezta neure burua ere. Gaur berriro errepikatuko da atzokoa. Oihuak eta kolpeak ez dira berriak, ez, baina azken bolada honetan egunerokoak bihurtu dira. Gainera, harreman sexualak oso bortitzak dira. Laguntza behar dut baina erabat beldurtuta nago. Bakarrik nago etxean amets gaizto hau


noiz amaituko den zain, baina... ez naiz indartsu sentitzen errealitate gogor honi aurre egiteko. Nahiago dut "nire munduan" bizitzen jarraitu.

Batzuetan egoera honen errudun bakarra neu naizela pentsatzen dut. Zer egin ote dut txarto? Noiz?... Baina ez diet erantzunik aurkitzen galderei eta horrek noraezean uzten nau.

Momentu honetan neure buruan dauden pertsona bakarrak Zuriñe eta Arkaitz dira. Konturatu ote dira etxeko giroa nolakoa den? Jasaten ote dute eurek ere tratu txarrik?

Ez dut ulertzen. Gorka ez dagoenean nire munduan bizi naiz. Ez dut arazorik eta zoriontsu bizi naiz nire seme alabekin. Badakit neure buruari gezurra esaten diodala, baina Gorkaren beldur naiz.

Gaur euria ari du eta berak egun euritsuak gorrotatzen ditu, lanerako zapatak bustitzen baitzaizkio; beraz, gaur atzo baino haserreago helduko da etxera. Gaur goizean nahiko lasai egon naiz, Gorka ikustean dar-dar hasi arren. Afarian lasai egotea espero dut.



Ahal dudan lasterren idazten saiatuko naiz norbaitek hau irakurriz gero, nire bizitzaren berri izateko eta ni egiten ari naizen kontrakoa egin behar dela konturatzeko".

Gorka oihuka sartu da atetik. Ane sukaldean dago bere zain, afaria zerbitzatzeko prest. Afaria bero dago eta Anek izututa begiratu dio Gorkari. Gorkak afaltzen duen bitartean, Anek egongelatik alde egin du; txarto sentitzen da bere senarra den gizon horren ondoan. Ez da ondo sentitzen senarra eta bera bakarrik daudenean, baina ezin izan du egoera hori ekidin.

Egongelan eleberri bat irakurtzen dagoela, Gorkak besotik hartu du bortitz samar eta logelako ohean bota du. Anek ez du ezertarako gogorik baina ez dio inolako oztoporik jarri. Konturatu denerako biluzik dago ohean etzanda. Ileak aurpegiaren erdia estaltzen dio eta atzoko kolpeen markak ikusten zaizkio besoetan. Sabaira begira dago eta minez beteriko malkoak jausten zaizkio masailetatik behera, burukoa bustitzen dutenak.

Aneren bizitzan, beste emakume askoren bizitzetan bezala, gaurkoa eguneroa izan da. Benetako egun bereziaren zain daude libre sentitzeko, euren buruaren jabe direla sentitzeko, errealitateari aurre egiteko, beldurrak eta lotsak atzean uzteko. Baina... noiz helduko ote da egun hori? Helduko ote da inoiz?...

Batek daki zer gertatuko den bihar! Egund berezia izango ote da?

BANDALOEN MENPE

Andoni Bermo Pérez
Ignacio Ellacuria BHI

Kaixo, ezezaguna:

Hauek nire azkenengo hitzak izango direla uste dut. Orain bandaloen menpe nago eta haien oinotsak entzuten ari naiz.

Ez dut janaririk eta orain dela egun bat joan zen gizona ez da oraindik itzuli. Dagoeneko hilda egongo da. Tunel honetan bakarrik nago, janaririk eta ia argirik gabe.

Laster aurkituko nautenez hau idazten ari naiz, aurkitu dudan sekretua ez gal-tzeko.

Hona hemen nire istorioa:

Frédéric deitzen naiz eta apaiz frantsesa naiz. Kristo osteko 453. urtean gaude, Auxerre hirian. Duela hilabete batzuk, bandaloak inperioan sartzen hasi ziren berria heldu zen hona. Egun hartatik gudarako prestatzen ari gara baina ez genien hain arin itxaroten.

Orain dela lau egun, gau euritsua eta iluna zen. Gu, apaizok, otoitz egi-ten ari ginen. Bat-batean, kanpaiak entzun genituen eta soldaduak guregana hurbildu eta handik joateko eta ezkutatzeko agindu ziguten. Ez genekien zer

gertatzen zen eta kalera atera ginen. Ni gelditu eta inguruari begira geratu nintzen. Jende guztia korrika eta oihuka zebilen, bakoitzak ahal zuen lekurantz. Dena isildu ondoren, zerua argitu egin zen. Suzko mantu bat balitz bezala suzko geziek zeru osoa estaltzen zuten. Geziak jauzi zirenean, etxeak eta pertsonak erretzen hasi ziren. Inoiz ikusi dudan sarraskirik handiena ikusten ari nintzen. Baina hori ez zen gauza bakarra; bigarren gezi olatua iritsi zenean, hiriko ateak zabaltu eta zaldunak hurbiltzen ikus nitzakeen. Korrika hasi nintzen, baina gero eta hurbilago entzuten nituen zaldiak. Orduan, sorbaldan kolpe handi bat sentitu eta lurrera jausi nintzen.

Esnatu nintzenean, zarata handia zegoen eta hiriaren erdigunean izugarrizko sua. Nire ondoan hildakoen gorpuak multzotan biltzen ziren. Neure burua antolatu nuenean, ezkutuka elizako tunelera joan nintzen. Bidetik nindoala itzal bat ikusi nuen. Ezkutatu egin nintzen eta, ezkutatzean, norbaitekin talka egin nuen. Bandaloa joan zenean, pertsona horrekin hitz egitean, Bernard arotza zela esan zidan. Orduan, berarekin tunelera joan nintzen. Tunele-rainoko ibilbidea arazorik gabe egin genuen.



Tunela kapila atzean dago. Hiritik ateratzeko dago. Baina ezin ginen atera, lurra jausi egin zelako eta ez zuelako pasatzen uzten. Hurrengo bi egunak Bernard eta biok lurra kentzen aritu ginen, baina ezin izan genuen zulorik ireki. Hirugarren egunean, biok zozketa egin genuen nor aterako zen ikusteko. Bera atera behar zen eta janaria eta ura ekarri beharko zituen. Baina ez zen egun berean itzuli.

Bitartean, nik zuloa egiten jarraitu nuen. Hurrengo egunean, harri handi bat kendu nuenean, lur asko jausi zen eta zerbait arraroa ikusi nuen horman. Lurra horman zegoen pitzadura batetik sartzen zen. Orduan harria hartu eta hormaren kontra bota nuen horma apurtuz. Soinu gogorra egin zuen eta norbaitek entzun ahal izango zuela pentsatu nuen. Hala ere, ikertzen jarraitu nuen eta eskuizkribu batzuk aurkitu nituen.

Hauetan etorkizunari buruzko zerbait jartzen zuen. Honela irakurtzen zen:

“Kristo aurreko 28. urtean gaude. Hiru urte daramatzat ikerketa batean eta azkenean lortu egin dut: etorkizuna ikus dezaket. Harriz egin dudan bataiarrian, ilargi betea dagoenean, nahi dudan urtearen izena latinez esanda, zer gertatuko den jakin dezaket. Ilargi bete batean urte bat bakarrik ikus dezaket. Urte asko ikusi ditut eta haietan teknologia berri asko ikusi dut, baina hilketa izugarriak ere bai. Milaka urte ostean, teknologia hiltzeko erabiliko da baina nik bakarrik ezin dezaket hori aldatu. Horregatik, hilketa hauek gertatu ez daitezen, bataiarria apurtu egingo dut.

Hau kontatzen dut 453. urtean norbaitek izkribu hau aurkituko duelako, bandaloengandik ihes egiten doala. Barkatu baina zure bizitza oso azkar amaituko da. Horregatik, mesedez, suntsi itzazu paper hauek. Oraindik denbora duzu etorkizuna aldatzeko. Nik ezin izan nuen bataiarria suntsitu, baina zuk oraindik egin dezakezu.”

Bataiarria ikusi dut eta ez dago apurtuta baina ez naiz apurtzeko gai. Horregatik idazten ari naiz hau. Irakurtzen bad



PARISKO HISTORIA MUSEOAREN LABORATEGIA

Ez dugu bataiarria aurkitu, baina paper hauek egiazkoak dira. Laster aurkitu egin beharko dugu.



132-C Agiria

Alaitz, lagun berezi baten istorioa

*Irene Vadillo Álvarez
Gabriel Aresti LHI*

URRIAK 7, astelehena

Gaur ikaskide berria izan dugu. Alaitz Markena du izena eta nik bezala 16 urte ditu. Baina Alaitz berezia da; Down sindromea du. Andereño Amaiak dio laguntza zentro batetik atera dela gizartean murgiltzeko asmoz eta ahal dugun guztian lagundu behar diogula.

Beti bezala, barreak eta algarak sortu dira guztiok oso urduri geundelako eta geroago, klasean sartu denean, neska atsegina zela iruditu zait. Bere burua aurkeztu du eta, ondoren, klaseko mutur batean eseri da, isilik.

Maite eta Saioa ikusi ditut txutxu-mutxuka Alaitzi begira. Klase guztiak normaltasunez jarraitu ditu, baina tentsioa eta urduritasuna nabarmenak ziren. Jolas-tordua iritsi denean, Alaitz liburutegirantz joan da Markel, Ane eta Saioari galdezka ea haiekin joan daitekeen. Hauek ezetz esan diote:

—Barkatu Alaitz, baina ez zaitugu gehiegi ezagutzen oraindik eta...

—Lasai... ez nigatik arduratu —esan die.

Ane eta Markelek ezetz esatea ulertzen dut, ikastolako "super fashion"ak direlako, baina Saioarena...

Guztiak ohiko eserlekuan bildu garenean ezin izan dut aguantatu.

—Saioa, zergatik esan diozu Alaitzi ezin zela gurekin etorri?

—Geldi, geldi —esan du Helenek (gure klasekoa ez den kuadrilako batek)— Nor da Alaitz?

—Gure klasera etorri berri den neska —erantzun dut.

—Ba, gurekin ez etortzeko esan diot ez dugulako ezagutzen. Gainera, Down sindromea du, Nerea!! —esan du Saioak.

—Ah!! Eta horrexegatik baztertu behar dugu?

Azkenean, eztabaida utzi eta larunbatean zer egingo dugun pentsatzen hasi gara. Klasera itzuli garenean ezin izan diot Alaitzi begirik kendu.

U RRIAK 16, asteazkena

Alaitzekiko jarrera ez da batere aldatu. Inork ez du berarekin egon nahi eta nik ez daukat indar handirik koadrilarengan, hauek onar dezaten. Gainera, oso lotsati jarraitzen du eta atsedenaldiak liburutegian ematen ditu. Ni ere oso lotsatia naiz eta asko kostatzen zait berari zerbait esatea.

Baina gaur ingeleseko irakasleak binaka jartzeko esan digu, lan bat egin behar genuen eta. Beste askotan ez bezala, Alaitzekin jarri naiz, Saioarekin egon beharrean.

—Kaixo! Ni Nerea naiz. Zer moduz guztia? Atsegin duzu hau?

—Aupa, Nerea! Bai, oso gustuko... dut. Beste ikastolan... baino hob... hobe-to nago —eta irribarrea eskaini dit.

Benetan ez dut ulertzen jendeak zergatik ez duen atsegin. Lana amaitu eta hizketan hasi gara. Baina, bada zerbait, kontatu didanean, moskeatu nauena.

—Bai... atzo... Ig... Igorrek nirekin pasatu... zuen arrats... arratsalde osoa. Eta musuak... eman zizkidan.

Nik inori ez esateko eskatu diot oso arraroa iruditu zaidalako kurtsoko mutilik guapoena berarekin egotea. Arratsaldean Youtube-n sartu naiz eta, kasualitatez, Igorrek eta bere lagunek grabatutako bideo bat topatu dut. Igor Alaitzekin zegoen bideoan eta besteak mugikorrekin grabatzen ari ziren, barre algaraka.

Kristoren moskeoarekin nago, baina beldur honek ez dit lagatzen ezer egiten.

U RRIAK 25, ostirala

Alaitzekiko jarrerak txarrera doaz eta haren aurkako trufak geroz eta handiagoak dira; mugikorrarekin grabatzen diote, baita institutuan bertan ere.

Gaur jolastokian, Helene eta biok institutu barrura sartu gara Alaitz defendatzeko eta lasaitu arte egon gara.

Jolas-ordu ostean, koadrilako besteei galdetu diegu ea Alaitz gurekin etor zitekeen bihar Alde Zaharrera.

—Ez dakit... rolloa apurtuko digu —esan du Maitek.

—Baina egun bat da, ez da ezer pasatuko eta neska jatorra da —esan du Helenek.

Azkenean, Maitek eta Saioak indar handiagoa dutenez besteen gainetik erabaki dute, oso alde txikiagatik, ez zela etorriko.

Ni harriturik klasera itzuli naiz isil-isilik.

U RRIAK 30, asteazkena

Alaitz laguntza zentrora itzuli dute gurasoek gaur. Alaitzek esanda jakin dut gurasoen nahia izan zela Alaitz hemen egotea, edozein neska bezalakoa izatea; baina ezin izan da.

Egunak pasa ahala, Igorrek eta bere lagunak Alaitzi egiten zizkioten gauzak txarragoak ziren. Nahiz eta klasean ondo joan, irakasleen laguntza zuen eta, egoera nahiko kaxkarra zen.

Igor eta beste bi hilabete baterako kanporatu dituzte eta Alaitz eraman behar izan dute. Klasean geunden gurasoek atea zabaldu eta etxera joateko esan dioten. Alaitzek neu agurtu, Heleneri bere partetik goraintziak emateko eskatu eta burumakur utzi du klasea.

Etixerako bidean pentsakor eta triste nenbilen.

—Nere, zerbait gertatzen al zaizu? —galdetu dit Mirenek.

—Gaur Alaitz zentrora itzuli dute, baina lasai...

Eta isilik geratu gara guztiok, Saioak ahoa zabaldu duen arte:

—Ba, nik ondo deritzot Alaitz eraman izanari.

—Isil zaitez! —esan diot.

Algaraka hasi gara koadrila osoa bere aurka eta moskeaturik etxerako bidea hartu du.

Etxe ondora heldu naizenean, guztiak agurtu eta etxeko eskailerak igo ditut. Ez dut ezer jan, ez nuen gogorik eta. Logelan sartuta igaro dut arratsaldea, tristeziaz jota eta Alaitz gaixoaz pentsatzen. Zer motatako bakardadea izango du bertan, zer maitasun eza... Alaitzen bakardadeagatik negar egin dut, baita mundu honek gu garen bezala onartuko gaituen itxaropena galdu dudalako ere. Eta nigatik, lagun bat galdu dudalako eta ez naizelako behar beste ausarta izan arazoari aurre egiteko eta Alaitz defendatzeko.

Gaur egun tristea izan da benetan. Gizakion alderik txarrenak irabazi du berriz ere.

Amonaren testamendua

Ainhoa Garmendia Lope
Ikasbide HLBHIP

Gogoratzen ari naiz nire amonarekin pasa ditudan urteak. Gehien gustatzen zaidan oroitzapena bost urte nituenean gertatu zen.

Oso pozik nengoen nire urtebetetzea izango zelako, bost urte izango nituen. Nire eskuko atzamar guztiekin kontatu behar nituen nire urteak! Baina nire poza aldendu egin zen, gurasoek esan zidatenean ez nuela urtebetetze jairik izango. Negarrez joan nintzen nire amonaren etxera, berak oso ondo kontsolatzen ninduelako. Baina nire amonak ezin zuen jairik prestatu, urtebetetzea hurrengo egunean izango zelako. Horregatik nire etxera oso atsekabetuta bueltatu nintzen.

Oso triste jaiki nintzen zeren eta ez nuen urtebetetze festarik izango. Nire gurasoen eta familiaren opariak ez ninduten alaitu. Nire bizitzako urtebetetzerik txarrena izango zela pentsatu nuen, baina ez zen horrela izan nire bizitzako urtebetetze onena izan zen eta.

Nire amonaren etxera joan nintzen eta atea irekitzean, han zeuden nire lagun guztiak oihukatzen: “Zorionak!” Nire amonari begiratu nion pozaren pozez eta berak irribarre egin zidan. Ez dut inoiz irribarre hori ahaztuko.

Errealitatera bueltatu naiz. Orain nire amona ez dago gurekin, joan egin da. Orain dela hilabete hil zen. Gaur egun ez du ia inork amona gogoratzen. Uste dut

nik bakarrik oroitzen dudala. Nire familiak ez dauka denbora nire amonari buruz pentsatzeko, lan asko egiten dutelako. Amonaren izena bere testamenduaz hitz egiten dutenean baino ez dut entzuten.

Gaur amonaren testamendua irekiko dute. Denak oso urduri daude, ez dakitelako amonak zer utzi dien. Abokatua etorri da eta testamendua ireki du. Irakurri du eta amaitu duenean denak hasi dira oihukatzen, ez zaielako ezer tokatu. Niri eta Pedro Lopez izeneko gizon bati utzi dizkigu bere gauzak. Ni eta Pedro Lopez bere etxearen jabe berriak gara. Nik ez dakit nor den Pedro, beraz, bere bila hasiko naiz.

Bi hilabete egon naiz Pedroren bila. Nire herrian hiru gizon daude izen horrekin. Oso izen ohikoa da. Bat nire herriko alkatea da. Hark nire amona ezagutzen zuen, baina ez daki ezer hari buruz eta nire amonak aukeratu balu, berari buruz asko jakingo zuen. Bigarrenak altzari denda dauka herriko plazan. Bere denda oso famatua da. Nire familiak beti erosi ditu altzariak bere dendan. Hura ez zen nire amonak aukeratutako Pedro Lopez, zeren eta nik betidanik ezagutzen dut eta nire amona ez zen inoiz hari buruz mintzatu. Azkena portuko arrantzale bat da. Ez dut uste nire amona ezagutuko zuenik amona txalupetan zorabiatzen baitzen. Ez dut uste ezagutu ditudan Pedro Lopezetariko bat ere nire amonak hain maite zuen Pedro Lopez denik.

Oso haserre nago amonak ez duelako pistarik utzi. Bere etxera joan naiz, misterio hau argitzeko zerbaiten bila. Bere logelan bilatu dut eta bere armairuan koaderno bat aurkitu dut. Koaderno irekitzean zenbait argazki eta paper erori dira. Argazkian bi lagun arrantzan ikusten dira. Koaderno irakurri dut eta arrantzari buruzkoa da. Konturatu naiz nire amonak maite zuena Pedro Lopez arrantzalea dela.

Urte bat egon naiz Pedro Lopezekin bizitzen eta amonari buruzko istorio asko kontatu dizkit. Oso zintzoa eta jakintsua da. Mila abentura eduki ditu itsaso zabalean. Orain Pedro Lopez aitonatzat daukat eta oso pozik bizi naiz berarekin eta nire familiarekin amonaren etxean.

Euxebio eta Luisa

Nerea Arrieta Ibañez
Artxandape Ikastola HLBHIP

—**B**aina, nor zara zu? Zer egiten duzu nire etxean? Alde hemendik! Luisak kezka aurpegia jarri zuen. Urduritasunak gorputz osoa hartu zion.

—Sssh, neu naiz. Luisa, zeure emaztea...

—Zu ez zara nire emaztea! Alde hemendik! Kanpora!

Luisa gelatik atera, sukaldean eseri eta negarrez hasi zen, etsipen hutsean. Nekaturik zegoen, ezin zuen egoera harekin, gehiegizkoa zen berarentzat. Eta iraganean hasi zen pentsatzen...

Gaztetan elkar ezagutu zuten herriko jaietan, erromerian zeudela. Euxebiok Luisa ikusi eta berehala ezagutzeko irrika sentitu zuen. Berarengana hurbildu eta eskua zabalduz "baduzu dantzarako gogorik?" esan zion. Luisari gorri-gorri jarri zitzaizkion masailak, irribarrez baietz erantzun eta eskua heldu zion hain jatorra zirudien mutiko hari. "Quizás, quizás, quizás" abestia entzuten zen bitartean biak plaza erdian zeuden dantzan.

—Beno, eta zein da zure izena?

—Ni Euxebio naiz, harakinaren semea.

Ez zeukala lotsarik zirudien. Ezagutu berriak ziren eta konfiantza guztiz hitz egiten zion Luisari. Bitartean, gerritik heldu eta irribarre egiten zion.

—Luisa da nire izena —esan zuen burua makurtuz— baina denek Gorritsu esaten didate, lotsa daukadanean masailak gorri-gorri jartzen zaizkidalako.

—Bai, lehen antzeman dizut —barre egin zuen.

Begirada alaia zeukan, bizia. Luisari atsegina iruditu zitzaion.

Jai giroa izugarria zen, jende piloa zegoen herriko plazan elkaturik. Denbora aurrera zihoan. “Y así pasan los días, y yo desesperado...”. Bikotea dantzan, elkarriketan.

—Gorritsu, beste egunen batean ere elkar ikusi beharko dugu, ezta? —bota zuen Euxebiok.

Luisa urduri jarri zen, ez zuen holako galderarik espero.

—Ba... ez dakit... agian... —ez zekien zer esan, ez zekien Euxebio berriro ikusi nahi ote zuen.

“Estás perdiendo el tiempo pensando, pensando. Por lo que más tu quieras hasta cuando, hasta cuando...”. Bat-batean abestia entzun zuten biek. Elkarri begiratu eta barre egin zuten. Euxebiok bekainak altxatu zituen eta “arrazoia dauka” aurpegia jarri zion Luisari. Berak, barreguraz, baietz esan zion, elkar ikusiko zutela.

Ezin zuen gehiago, Euxebiok ez zuen berarekin egon nahi. Nork zainduko zuen orduan? Nork hartuko zuen ardura hori? Ez zekien zer egin eta telefonoz Aureliori deitu zion.

—Seme, ez dakit zer egin aitarekin. Ez du nirekin egon nahi, ezezagun bat naizela uste du. Etsiturik nago.

—Lasai, ama. Zer iruditzen zaizu ospitalera eramaten badugu? Han jakingo dute zer egin eta zu lasaiago egongo zara.

—Ospitalera? Ez, han ez da ondo egongo.

—Eta non egongo da hobeto? Medikuek zainduko dute. Ziur horrelako mila kasu ikusi dituztela eta jakingo dute zer egin.

—Ongi da. Deitu ospitalera eta berriren bat egonez gero... deitu nazazu.



Hamabost egun geroago Luisa 316. gelan sartu zen. Euxebio bertan zegoen, ohean etzanda, lotan. Aulki bat hartu eta ohe ondoan eseri zen. Euxebio hurbil sentitzeak lasaitasuna ematen zion, denbora asko egona zen bere senarra hurbil sentitu gabe. Esku epel eta tximurtuak hartu zizkion eta hizketan hasi zitzaion:

—Ai, Euxebio, nire Euxebio maitea. Zenbat maite zaitudan... eta ez zara nitaz oroitzen. Zer egingo dut nik orain?

Bazekien ezin zuela entzun, baina denboraldi luzea zeraman Euxebiorekin lasaitasunez hitz egin gabe. Altxatu eta musu eman zion bekokian. Asko maite zuen bere senarra, oso maitemindurik zeuden biak eta. Bizitza osoa elkarrekin egon eta gero ez zuen Luisa gogoratzen. Luisari tristura handia ematen zion hori pentsatzeak, bere senarra lapurtu baliote bezala sentitzen zen; ez zitzaion justua iruditzen.

Astebete pasatu zen hurrengo bisita egin zion arte. Urduritasunez sartu zen ospitalean, baina Euxebio ikusteko irrika ere bazeukan. Ospitaleko sarreran, bere senarra zaintzen zuen erizaina aurkitu zuen. Emakumea hurbiltzen zitzaiola ikusi zuen:

—Egun on, Luisa —esan zuen erizainak— Zer moduz? Gaur esnaturik harra-patuko duzu. Gauza bat komentatu nahi dizut. Ez dakit zergatik baina Euxebio egun osoa dabil abesti berbera kantatzen, egunak daramatza horrela. “Igual, igual” edo “Quizás, quizás” esaten duen abesti bat da, etengabe abesten du. Ez duzu zuk jakingo zerbait esan nahi duen, ezta? Alzheimerra oso gaixotasun arraroa da eta agian horrek zerbait esan lezake.

Une horretan Luisari urdaila kuzkurtu, bihotzak buelta eman eta irribarre batek aurpegi osoa bete zion. Esperantzaz bete zen. Euxebiok Luisa gogoratzen zuen edo, Luisa ez bazen, Gorritsu.

Aurkibidea

Alkatearen agurra	3
Sariak	4

A Kategoria (Lehen Hezkuntza, 3-4. mailak)

- Peio arratoia	9
- Maritxu burualdagarri	12
- Gorriga herria	15
- Liburu magikoa	17
- Etxerako lanen mundua	20
- Ane eta bere instrumentuak	22
- Txinara bidaia	25

B Kategoria (Lehen Hezkuntza, 5-6. mailak)

- Komuneko paperaren istorioa	31
- Aitonaren museoa	33
- Bart gaueko misterioa	35
- Jonen arazoa	40
- Liburu magikoak	42
- Nire bizitzako unerik ikaragarriena	44

C Kategoria (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza 1-2. mailak)

- Nire aitona punk-a zen	49
- Benetako familia	51
- Kolpe gogorra	53
- Adiskidetasuna ez da beti erraza	55
- Gezurraren bidaia	57

D Kategoria (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza 3-4. mailak)

- Maitasunaren memoria laburra	63
- Aneren egunerokoa	66
- Bandaloen menpe	68
- Alaitz, lagun berezi baten istorioa	71
- Amonaren testamentua	74
- Euxebio eta Luisa	76